

# **BERGARAKO UDALA**

**BERGARAN INDARKERIA  
MATXISTAREN BIKTIMA  
DIREN EMAKUMEEI ARRETA  
EMATEKO ERAKUNDEEN  
ARTEKO KOORDINAZIO ETA  
ARRETARAKO TOKIKO II.  
PROTOKOLOA  
2023**



**Bergarako  
Udala**

## **AURKIBIDEA**

HITZAURREA	4
ZIOEN AZALPENA	7
1. LEGE-ESPARRUA	9
2. TERMINOLOGIA-ESPARRUA	11
3. PRINTZIPIO GIDARIAK	15
4. DATUEN BABESA	18
5. BERGARAN INDARKERIA MATXISTAKO KASUETARAKO PROZEDURAK	19
5.1. SARBIDEAK: SARBIDEAK ETA DETEKZIO-ZERBITZUAK	19
5.2. UDAL-ARRETARAKO PROZEDURAK	19
5.3. ETENGABEKO ARRETA	21
5.3.1 Esku-hartzean kontuan hartu beharreko alderdiak	22
5.3.2 Etengabeko arreta arlo ezberdinetan	22
5.4. ARRETA LARRIALDIETAN	26
5.4.1. Larrialdietan esku hartzeko prozesuan laguntzea	28
5.4.2. Larrialdiko ostatua	29
5.4.3. Adingabeentzako arreta	30
5.4.4. Informazioa eta aholkularitza, eta bideratzea	30
5.4.5 Arreta larrialdietan arlo ezberdinetan	30
5.5. SEXU-ERASOEN KASUETARAKO ARRETA	34
5.5.1. Sexu-erasoen aurreko arreta	34
5.5.2. Sexu-erasoen aurreko arreta	34
5.5.3 Arreta sexu-erasoen aurrean	35
6. ERAKUNDEEN ARTEKO KOORDINAZIOA	37
6.1. Akordioak betetzeko eta haien jarraipena egiteko koordinazio teknikoko mahaia	37
6.1.1. Koordinazio teknikoko mahaiaren eginkizunak	38
7. UDALAREN ERABAKI ETA ERAKUNDEAREN EKINTZA INSTITUZIONALEI BURUZ	39
7.1. Erantzun instituzionala Bergarako udalerrian	39

### 3 | BERGARAN INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEEI ARRETA EMATEKO ERAKUNDEEN ARTEKO KOORDINAZIO ETA ARRETARAKO TOKIKO II. PROTOKOLOA

7.2 Erakundeen erantzun publikoaren antolaketa kasuak publikotasun bat badu edo emakumeak nahi badu	41
7.2.1 Erakundeen erantzun publikoaren antolaketa: Koordinazio mekanismoak aktibatzen dira	43
7.3. Indarkeria matxistako kasuen aurrean erantzun publikoak emateko moduak	45
0. EGOERA-EMAKUNDEK AKTIBATZEN DUENA	48
1. EGOERA	49
7.4 Erakundeen erantzunaren jarraipena	50
I. ERANSKINA.	51
1.2. 2013ko maiatzeko Erakundeen arteko II. Akordioaren Jarraipen Batzordearen Akordioa. Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen ondoriozko heriotzen aurrean jarduteko prozedura	51
2. ERANSKINA	54
2.1. UDALEKO, FORU ALDUNDIKO ETA AUTONOMIAKO BALIABIDEAK	54
2.2 Arlo ezberdinetako baliabide interesgarriak	57
3. ERANSKINA	58
3.1 IZAERA PERTSONALEKO DATUEI BURUZKO INFORMAZIOA EMATEKO ETA DATU HORIEK ERABILTZeko BAIMENA EMATEKO AKTA. ERTZAINZA	58
4.1 DATU PERTSONALAK LAGATZeko BAIMENAREN AKTA	59
5. ERANSKINA	63

## HITZAURREA

2012. urtean, *Emakumeenganako indarkeriaren kasuetan esku hartzen duten udal erakundeen eta sailen arteko I. Koordinazio Protokoloa* jarri zen abian Bergaran. Abian jartzeko, inplikaturako hainbat eragileren arteko bilerak egin ziren 2012. eta 2013. urteetan, baina urte horretan bertan utzi egin zitzaion koordinazioari.

2022. urtean, berdintasun politika publikoak garatzeko konpromisoa berritzeko eta eguneratzeko, eta udalerrian artatzen diren indarkeria matxistaren kasuen aurrean arreta eta koordinazioa hobetzeko helburuarekin, Berdintasun arlotik *Bergaran Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei arreta emateko erakundeen arteko koordinazio eta arretarako tokiko II. Protokoloa* sortzeko prozesua martxan jarri zen.

Lan-prozesu hori proposatu zen antzeman zelako 2012. urtean martxan jarritako mekanismoak berritzeko beharra zegoela; zehazki, udalerrian indarkeria matxista jasaten duten eta erakunde publikoetara laguntza bila jotzen duten emakumeei eskainitako arreta koordinatu, baloratu eta hobetu behar zela aldizkako modu formal batean.

Lana garatzeko, bizirik ateratako emakumeen iritzi eta esperientzia jaso da. Modu berean, mugimendu feministaren eta emakumeei laguntzen diharduten eragile anitzen esperientzia eta iritzia ere jaso da, Bergarako emakumeen laguntzarako sare informala diren heinean.

Prozesu hau une historiko batean gauzatzen da, non legedian eta jendarte mailan aldaketa asko garatu diren, eta horrek detektatzen eta artatzen diren kasuen aurrean jarduteko moduak egokitzea dakar. Legegintza-arloan, bigarren protokolo hau gauzatu aurretik honako lege hauetan hiru aldaketa garrantzitsu egin dira:

- ***Martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretua, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea testu bateratzea onesten duena (EAE)***

Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren kontzeptua zabaldu egiten da, beste modu eta esparru batzuk sartuz. Arreta-ereduak ere aldatzen ditu, eskumen-eremuetan eraginez.

- ***8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Osorik Babestekoa:***

Adingabeen babesari buruzko berrikuntzak sartu dira eta horiek tokiko eta foru-mailako arreta-ereduei eragiten diete.

- **10/2022 Lege Organikoa, irailaren 6koa, sexu-askatasuna erabat bermatzekoa:**

Lege berri honen onarpenarekin, sexu-indarkeriaren biktimek genero-indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren biktimek dituzten eskubide berberak izango dituzte, eta, beraz, haien arreta koordinatu egin beharko da protokoloen esparruan.

Hori dela-eta, bigarren protokolo hau sortu eta abian jartzeak indarkeria matxistari aurre egin nahi dioten berdintasun-politiken hobekuntza ekarriko du, Bergaran indarkeria matxista bizi eta aurre egiten dioten emakumeei erreparazioa eta laguntza eskaintzeko konpromisoarekin jarraituz.

## BERGARAN INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEEI ARRETA EMATEKO ERANUNDEEN ARTEKO KOORDINAZIO ETA ARRETARAKO TOKIKO II. PROTOKOLOA

Bergaran,

 <p>Begarako Udala</p>	
 <p>ERTZAINTEA</p>	
 <p>Osakidetza</p>	
 <p>EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO</p> <p>HEZKUNTZA SAILA DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN</p>	
 <p>MIGUEL ALTUNA Lanbide Heziketa</p>	
 <p>ARANZADI <i>ikastola</i> Kalitatezko Euskal Heziketa</p>	
 <p>IPINTZA Begarako Institutua</p>	
 <p>Mariaren Lagundia Ikastola • Bergara MARIAREN LAGUNDIA</p>	
 <p>San Martin Agirre herri eskola</p>	
 <p>MARTXAN TERAK</p>	

## ZIOEN AZALPENA

Protokolo hau sinatu duten erakundeen ustez:

- Indarkeria matxista **emakumeengana emakume izate hutsagatik** iristen da, haien portaerak eta adierazpenak edozein izanda ere, eta horrek haienganako **Giza Eskubideen urraketa** larria da.
- Emakumeen aurkako indarkeria matxistak botere-harreman sozialak errepikatzen ditu, eta horren ondorioz, emakumeen eta gizonen arteko harremanetan **desberdintasun hierarkikoari** eusten zaio, non emakumeak mendekotasun egoeran geratzen diren.
- Emakumeen aurkako indarkeria matxistak **biztanle guzti-guztiei ere eragiten die**; biktimen ingurune hurbilenetik hasi (lagunak, senideak, bikotekide berriak, etab.) eta auzokoengan eta, oro har, herritarrengan. Horrenbestez, prebentzioko, arretako eta erreparazioarako esku-hartzeek indarkeria horren ondorioak bizi dituzten pertsona guzti-guztiak hartu behar dituzte kontuan.
- Emakumeen aurkako indarkeria matxista **osasun publikoko arazoa** da; izan ere, biktimei eragindako kalte horiek –sufrimendu edo kalte fisiko, sexual, psikologiko edo sozialak, arlo sozioekonomikokoak edo ondarekoak– osasuna hondatzen diete bai indarkeria matxistaren zuzeneko biktimei – aurrez aurre dutelako–, bai indarkeria horren biktima bikarioei.
- Era berean, indarkeria matxista honako hau ere bada: gaur egun nagusia den **sexuaren-generoaren-sexualitatearen** sistemaren arauen barruan jokatzen, adierazten edo txertatzen ez den pertsona ororen kontrako indarkeria; hau da, sexu eta genero binarismoa ezarrita, LGTBIQA+ pertsona eta kolektiboan aniztasuna baztertzen duena.
- Protokolo honek etengabe hobetzeko bokazioa azpimarratu nahi du, hau da, ez da dokumentu itxia; koordinazioa eta jarraipena egiteko aurreikusitako espazioetan sortzen diren **beharrak hauteman eta horietara egokitzen** joango da.

## **HORRENBESTEZ, HONAKO HAU ERABAKI DA:**

**LEHENENGOA:** Parte hartzen duten erakundeek protokolo hau sinatzen dute berau aplikatzeko benetako konpromisoa azalduz eta horren erakusgarri.

**BIGARRENA:** Prozeduren jarraipena eta eguneraketa egingo da lan-mahai iraunkorrean, honako hauek parte hartuta: Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak, Berdintasun Zerbitzua, Bergarako Osasun Zentroa, Bergarako Udaltzaingoa, San Martin Agirre HLHI Ikastetxe Publikoa, Ipintza Institutu Publikoa, Maria Lagundia Ikastola, Aranzadi Ikastola, Miguel Altuna LHII Institutua eta Bergarako Ertzaintza<sup>1</sup>.

**HIRUGARRENA:** Prestakuntza eta etengabeko eguneraketa izatea azken lege-aldaketei buruz, biktimekin eta bizirik ateratakoekin egiten diren esku-hartzeetan eragin zuzena dute-eta.

**LAUGARRENA:** Esku-hartzea etengabe hobetzearen alde eta biktimaren kontzeptua zabaltzearen alde egitea. Horretarako, indarkeria matxistaren, arretaren eta esku-hartzearen arloko prestakuntza espezifikoa eskaintzea, LGTBIQA+ kolektiboetako pertsonen aurkako indarkeria barne hartuta.

**BOSGARRENA:** Protokolo honen edukia zabaltzea indarkeria matxistaren detekzioan, prebentzioan edo arretan –zuzenean nahiz zeharka– zeregina duten langileen artean.

**SEIGARRENA:** Udalerrian, genero-indarkeriaren eta bestelako indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen eta adingabeen kopuruari buruzko datuen erregistroa izatea. Datu horien azterketaren helburua izango da ahalik eta hobekien ezagutzea eragindako biztanleria-mota eta laguntza eskatzeko prozesuan dituzten premiak eta zailtasunak. Erregistroan jasoko diren zehaztasunak martxan jarriko den erakundearen arteko mahaiari adostuko dira.

**ZAZPIGARRENA:** Emakumeen aurkako indarkeria matxista prebenitzea, hari aurre egitea, konpontzea eta desagerraraztea xede duten politikak berdintasun politiken barruan kokatu behar dira, eta EAEko administrazio publikoetan emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan eskumena duten organoek –bakoitzak bere eskumenen eremuan– lidergo eta koordinazio orokorreko eginkizuna bete behar dute.<sup>2</sup>

---

<sup>1</sup> Bergarako Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 2. Epaitegiko ordezkariarekin komunikazioa mantendu da prozesuan zehar baina ez da bere konpromiso zehatza jaso protokoloaren mahaiari parte hartzeko.

<sup>2</sup>EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko 4/2005 Legearen VII. Kapituluko xedapen orokorrak.



**ZORTZIGARRENA:** Gizarte-zerbitzuen arloan eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan eskumena duten organoen arteko koordinazio-espazioak sustatuko dira, arreta-ereduen definizio bateratu bat lortzeko, esku hartzean genero-ikuspegia txertatzeko eta arreta hobetzen lagunduko duten lankidetzeta-mekanismo egonkorrak sortzeko<sup>3</sup>.

## 1. LEGE-ESPARRUA

Bigarren protokolo hau egiteko orduan, legegintzako erreferentzia-esparrua zabaldu egin da; aldatu egin da; izan ere, indarkeria matxistaren beste modu batzuk sartu dira, lehen kontuan hartzen ez zirenak, eta hori guztia EAEko botere publikoen jardunean kokatu da.

Testuinguru horretan, **emakumeen aurkako indarkeriaren** alorrean dugun lege-esparrua honako arau hauetan garatzen da:

- a. 10/2022 Lege Organikoa, irailaren 6koa, sexu-askatasuna erabat bermatzekoa.
- b. Martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretua, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea testu bateratzea onesten duena (EAE)
- c. Ebazpena, 2021eko abenduaren 2koa, Berdintasunerako eta Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Idazkaritzarena, Berdintasunerako Konferentzia Sektorialaren 2021eko azaroaren 11ko Erabakia argitaratzen duena, genero-indarkeria egon dela egiaztatzeari buruzkoa.
- d. 9/2018 Errege Lege Dekretua, abuztuaren 3koa, Genero-indarkeriaren aurkako estatu-ituna garatzeko presako neurriena.
- e. Emakumeen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeko eta borrokatzeko Europako Kontseiluaren Hitzarmena (Istanbulgo Protokoloa), 2011ko maiatzaren 11koa, Espainiako Estatuak 2014ko apirilaren 11n berretsia, 2014ko abuztuaren 1etik aurrera indarrean dagoena.
- f. 2/2015 FORU ARAUA, martxoaren 9koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa (Gipuzkoa).
- g. 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoa.

---

<sup>3</sup> EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko 4/2005 Legearen 56. artikulua.

Era berean, **atzerriko emakumeen aurkako indarkeriaren** arloan, honako legeria hau dago:

- a. 4/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 11koa, Atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta atzerritar horiek gizarteratzeari buruzkoa.
- b. Errege Dekretua 557/2011, apirilaren 20koa, Espainiako atzerritarren eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzko 4/2000 Lege Organikoaren Erregelamendua onartzen duena, 2/2009 Lege Organikoaren bidez aldatu ondoren.
- c. 240/2007 Errege Dekretua, otsailaren 16koa, Europar Batasuneko estatu kideetako herritarrak eta Europako Esparru Ekonomikoaren gaineko Akordioan zehaztutako beste estatu batzuetako herritarrak Espainian sartu, aske ibili eta bizitzeari buruzkoa.

**Adingabeen babesaren** eremuan:

- a) 8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik osorik babestekoa.
- b) 8/2015 Legea, uztailaren 22koa, haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzen duena. Azken xedapenetako hirugarrenean, Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoa aldatzen da.

Eta lege-esparru horren arabera, eta *Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoan ezarritakoarekin bat etorriz*, bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeria zuzenari aurre egiten dioten **emakumeen eskubideak** ezartzen dira. Ordena honetan aipatzen dira salaketa publikoen tratamenduari buruzkoak:

- ✓ Informazioa eskuratzeko eskubidea.
- ✓ Erasotzailearen aurrean ez deklaratzeko eskubidea, eta norberaren segurtasuna eta ongizate emozionala bermatzen duten baliabide guztiak erabiltzeko eskubidea.

- ✓ Gauza<sup>4</sup> bere onera itzultzeko, kaltea konpontzeko eta eragindako kaltearen kalteordaina jasotzeko eskubidea.
- ✓ Duintasuna eta intimitatea babesteko eskubidea.

## 2. TERMINOLOGIA-ESPARRUA

“Emakumeen aurkako indarkeria matxista” terminoa honako honi dagokio: emakumeen eta gizonen artean dagoen hierarkia sozialaren ondorioz gauzatzen den kontrol eta botere indarkeria adieraztea, adierazpen-mota edozein izanda ere; hau da, “maskulinoa” “femeninoa” denaren gainetik egotearen ustean oinarritutako jokabide bortitz guztiak.

Alde horretatik, **Martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretua, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea testu bateratzea onesten duenak (EAE)**<sup>5</sup> zabaldu egiten ditu indarkeriaren formak eta eremuak eta horiek eskumen-eremu desberdinetatik artatu behar dira:

*Emakumeen aurkako indarkeria matxista dira bikotekidearen edo bikotekide ohiaren aurkako indarkeria, familia barrukoa, sexu-indarkeria, feminizidioa, emakumeen eta neskatilen salerosketa, sexu-esplotazioa, emakumeen genitalen mutilazioa, behartutako ezkontzak eta beste praktika tradizional kaltegarri batzuk, hertsapena edo askatasun-gabetze arbitrarioa, tortura, indarkeria instituzionala, jazarpena, genero-indarkeria politikoa, indarkeria digitala eta sare sozialetakoa, obstetrikoa, sexu- eta ugalketa-eskubideen urraketa, bai eta emakumeen eta neskatilen duintasuna, osotasuna edo askatasuna urratzen duen edo urra dezakeen beste edozein indarkeria-mota ere, nazioarteko tratatuetan, Espainiako Zigor Kodean edo estatuko edo autonomia-erkidegoko araudian aurreikusita badago. Hori guztia, edozein eremu publiko edo pribatutan gertatzen dela ere, honako esparru hauetara mugatzen ez bada ere: familia, lana, hezkuntza, osasuna, kirola eta komunitatea, komunikabideak, aisialdiko eta jaietako espazioak eta ingurune birtuala.*

---

<sup>4</sup> Zuzenbidearen eremuan, “gauza” harreman juridiko baten objektua da, harreman juridiko horren subjektua pertsona bat edo gehiago izanik. Bai betebeharrak, bai eskubideak eta ondasunak “gauzak” dira maila juridikoan.

<sup>5</sup> Martxoaren 3ko 1/2022 Legearen testu bategina, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta indarkeria matxistarik gabe bizitzeko 4/2005 Legea bigarren aldiz aldatzen duena.

Era berean, biktimen kontzeptua ere zabaldu da (Art. 54.4):

*Emakumeen aurkako indarkeria matxistatzat hartzen da, halaber, biktimei laguntzen dieten pertsonen aurkako indarkeria, bai eta biktimen gertuko ingurunearen edo ingurune afektiboaren aurkako indarkeria ere, bereziki seme-alaben edo beste senide batzuen aurkakoa, emakumea laidotzeko borondatearekin.*


Bestetik, nahiz eta 2/2015 Foru Arauan<sup>6</sup> indarkeria matxistak indarkeria sexista eta indarkeria matxistaren beste forma batzuk jaso (transfobia, lesbofobia eta homofobia), hala ere, gaur egun udal, foru, eta autonomia-zerbitzu publikoek ez dute horrelako indarkeriei arreta emateko gaitasunik. Horregatik, horiek ez dira kontuan hartuko prozeduretan.

Testuinguru honetan, protokolo honek indarkeria hauei aurre egiteko moduak planteatuko ditu, eta, horretarako, erreferentzia-esparru hau hartuko da kontuan, non bereizten diren emakumeen aurkako indarkeria matxista zein arlotan gertatzen den eta indarkeria horren askotariko formak:

---

<sup>6</sup> 2/2015 Foru Araua, martxoaren 9koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa

### EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA MATXISTAREN ARLOAK





### 3. PRINTZIPIO GIDARIAK



- **Indarkeriarik gabe bizitzea.** Esku-hartzearen helburua beti izango da harreman afektibo eta sozialak indarkeriarik gabe bizi ahal izatea. Salaketa tresna garrantzitsua da horretarako, eta prozesu baten zatitzat hartu beharko da, biktimaren segurtasunean duen eragina baloratuz. Bikotearen banantzea emakume bakoitzari dagokion erabakia da, ez esku-hartzearen helburua.
- **Lehentasuna.** Edozein motatako indarkeria matxistaren aurrean, edozein arlotan gertatzen dela ere, arreta berehala eta modu integralean emango da, lehenengo erabiltzen den baliabidearen bidez, eta beste baliabide batzuekin koordinatutako jarduketa eskainiko da.
- **Eraginkortasuna eta arintasuna.** Bermatu egin beharko da, berehala jarduteko.
- **Berdintasuna.** Arreta bermatu beharko da inolako diskriminaziorik egin gabe, edozein izanda egoera zibila, sexu-orientazioa, adina, sinesmena edo ideologia, diskriminatu



gabe gutxiengo etniko, nazional edo linguistiko batekoa izateagatik, maila ekonomikoagatik, desgaitasun fisiko, psikiko edo sentzoriala izateagatik, edo beste edozein egoera pertsonal edo sozialetan egoteagatik. Beharrezko neurriak hartuko dira biktimen eskubideen egikaritza eraginkorra bermatzeko baldin eta biktima horien inguruabar pertsonal eta sozialek zailago egiten badute laguntza jasotzea, eta bereziki desgaitasuna duten emakumeen kasuan<sup>7</sup> eta emakume migratuen kasuan, haien administrazio-egoera edozein izanda ere; kasu horiek, beharrezkoa izanez gero, udalaz gaindiko baliabideetara bideratuko dira.

Bereziki, desgaitasuna duten emakumeek informazioa eta dauden baliabideak eskuratzeko duten eskubidea bermatze aldera, horientzat beharrezkoak diren egokitzapenak egingo dira: garraiorako laguntzak, laguntza pertsonala (senideen laguntza, hezitzaile espezializatuen laguntza, erreferente espezializatuen laguntza) , zeinu-mintzairaren interpreteak, braille dokumentuak, komunikazio handigarria, etab.

Gainera, komunikazio-hizkuntza gaztelania edo euskara ez bada, hizkuntza-oztopoak gainditzeko edo arintzeko neurriak hartuko dira. Kasu horietan gogoratuko da oso garrantzitsua dela errolatzea eskatzea, horrela gizarte-babeseke sarearen oinarrizko prestazioak eskuratu ahal izateko.

- **Laguntza integrala eta pertsonalizatua.** Kasu bakoitzaren berezitasunak hartuko dira kontuan, faktore intersektionalak kontuan hartuta; hala nola, bizi izandako indarkeria mota, horren iraupena, adina, jatorria, ingurunean izan dezakeen babesa, eta beste faktore batzuk. Era berean, kontuan hartuta ez dela beharrezkoa salaketa jartzea eskubidez dagozkion zerbitzu eta baliabide guztiak eskuratzeko, aukera bakoitza emakume bakoitzaren behar eta ezaugarri espezifikoaren arabera landuko da.
- **Segurtasuna eta babesa.** Esku hartzeak bideratzerakoan, biktimaren osotasun pertsonala gailendu beharko da: haren babes fisikoa eta haren fitxategien edo datu pertsonalen babesa; bizi dituen edo bizi izan dituen indarkeria ekintzen inpunitatea eragin gabe. Babes neurriak aurreikusterakoan, instalazio fisikoetan, emakumeek horietan dauden bitartean segurtasun-guneak izango dituzte, horrela biktima eta erasotzailea aldi berean ondoan egon ez daitezen, salaketa, arreta eta jarraipena egiteko izapideetan.

Esku-hartzeak irauten duen bitartean konfidentzialtasuna bermatu beharko da, eta jasotako datuei emango zaien erabileraren eta horri buruz dituen eskubideen berri emango zaio.

---

<sup>7</sup> Desgaitasuna aipatzen denean aniztasun funtzionala hartuko da kontuan.



- **Erantzukizuna.** Parte-hartzaileak bere laneko gabeziak jakinarazi behar dizkio zuzendaritzari edo ikuskatzaileari, eta horiek konpontzeko baliabideak eskatu.
- **Birbiktimizazioa saihestea.** Esku-hartzearen lehentasunezko helburuetako bat da, eta, horregatik, saiatuko gara indarkeria instituzionala saihesten. Horrek koordinazio zuzena eskatzen du, kontakizunaren alferrikako errepikapenak saihestuz, eta arreta egokia eskaintzea, non harrera egokia egin ondoren prozesua modu argi eta egokian azalduko zaion, biktimari entzuten, iritzirik azaldu gabe, non fokua biktima bera izango den eta bere erabakiak.
- **Erreparazio-printzipioa, ahalduntzera bideratuta.** Horretarako, bizirik ateratako biktimak artatzen dituzten zerbitzu publikoek ekintzak jarri beharko dituzte abian, jasandako kaltea maila guztietan artatzeko; lan egin beharko dute indarkeriaren geroko ondorioak ere arreta izango dutela bermatzeko; eta neurriak ere hartu beharko dituzte, biktimen eskubideen urraketa ahalbidetu duten baldintzak berriz gertatuko ez direla bermatzeko.<sup>8</sup>
- **Adingabekoen interesa defendatzea.** Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko behar diren neurriak hartuko dira, eta esposiziopeko biktimatzat hartuko dira, Haurrak eta Nerabeak Indarkeriaren aurrean Osorik Babesteko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoaren printzipioekin bat etorritik.


Gainera, bermatuko da emakume biktimen seme-alabak ez direla egongo presente biktimak bere bikotekideak erabiltzen duen indarkeriari buruz aitortzen duen prozeduretan; eta salaketa jartzerakoan edo errekurtsioak izapidetzerakoan biktimarekin batera badoaz, arreta egokia jasotzeko moduko gune bat bilatzen saiatuko gara.

---

<sup>8</sup> Erreparazio-neurriak txertatzeari buruz gehiago jakin nahi izanez gero, kontsultatu Indarkeria matxistaren biktimak erreparatzeko tokiko ekintzen gida  
[https://www.eudel.eus/es/file/libro\\_ficheros/gida\\_1](https://www.eudel.eus/es/file/libro_ficheros/gida_1)

#### 4. DATUEN BABESA

Inplikaturako erakundeek jardun beharko dute Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan (DBEDBLO) araututakoaren arabera. Lege horrek administrazioen zenbait betebeharrak jasotzen ditu




eta horiek kontuan hartu behar dira datuak lagatzeko baimena ematerakoan:



## 5. BERGARAN, INDARKERIA MATXISTAKO KASUETARAKO PROZEDURAK

### 5.1. SARBIDEAK: SARBIDEAK ETA DETEKZIO-ZERBITZUAK




Bergaran, indarkeria matxistaren biktimen zerbitzu publikoetara sartzeko bideak udal-, foru- eta autonomia-zerbitzuei dagozkie. **Arreta**-guneak izateaz gain, zerbitzu horiek oso zeregin garrantzitsua betetzen dute indarkeria **detektatzeko** gune gisa. Horrenbestez, detekzioak eragin zuzena izango du biktimekin ondoren egingo den esku-hartzean.

### 5.2. UDAL-ARRETAKO PROZEDURAK

Indarkeria matxistako arreta kasu hauetara zuzentzen da:

- Urgentziazko arreta: Indarkeria matxistaren kasuak eta gertatu berriak diren sexu-erasoen kasuak artatuko dira
- Etengabeko arreta: Indarkeria matxistaren kasuak eta gertatu berriak ez diren sexu-erasoen kasuak artatuko dira

Jarraian jaso da indarkeria matxistaren biktimei arreta emateko baliabideen eskema:



### 5.3. ETENGABEKO ARRETA



### 5.3.1 Esku-hartzean kontuan hartu beharreko alderdiak

- ❑ Etengabeko arretan larrialdi-egoerak sor daitezke. Larrialdi-egoera hauetan erasotzaileak biktimari eraso egin diezaioke, biktima berehalako arrisku-egoeran jarritz.
- ❑ Biktimak erasotzailearekin daukan harremanean joan-etorriak egon daitezke, esku-hartzeari kalterik eragin gabe. Joan-etorrien egoera honetan biktimak kontraesanak sentitu ditzake eta erasotzailearekin harremana mantendu. Horrek ez du esku-hartzea baldintzatu behar.
- ❑ Eusko Jaurlaritzak genero-indarkeriaren eta eraso sexualen biktima gisa ematen duen egiaztagiria Oinarritzko Gizarte Zerbitzuetatik (OGZ) tramitatzen da.<sup>9</sup>
- ❑ Biktima adingabekoekin eskura dauden baliabide espezifiko guztiak eskainiko dira.
- ❑ Kasua Oinarritzko Gizarte Zerbitzuetan ez badago eta tartean adingabekorik badago, Oinarritzko Gizarte Zerbitzuei jakinarazteko betebeharra dago, adingabearen interes gorenari jarraituz.
- ❑ Kasua OGZetan badago eta biktimak babesteko babes-neurriak hartzen badira, emakumearekin adostu behar da nola abisatu ikastetxeari<sup>10</sup>.

### 5.3.2 Etengabeko arreta arlo ezberdinetan

Kasu baten aurrean, arlo edo eragile ezberdinek baliabide ezberdinak aktibatu ditzakete.

- ❑ **OGZetatik**<sup>11</sup>, emakumeari arreta emango zaio, banakako plan bat ezarriz, betiere emakumearen iritzia eta erabakia erdigunean jarritz, eta kasuaren jarraipena egingo da. Behar diren baliabideak aktibatuko dira, kasuaren ezaugarriak kontuan izanda.

---

<sup>9</sup> Titulu ez-judizial bat da, genero-indarkeriaren biktimaren egoera egiaztatzea gaitzen duena, oinarritzko gizarte-zerbitzuen edo genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntzeko zerbitzu espezializatuen balorazio-txosten batean oinarrituta.

<sup>10</sup> Honi buruz oraindik ez da prozedurarik adostu eta etorkizun hurbilean adostu beharko da.

<sup>11</sup> Ordutegiz kanpo (hau da, astelehenetik ostiralera arte 13:30etik 8:30 arte eta asteburuetan), artapena GLKZ (SCUS) zerbitzuetatik egingo da.

### Aktibatu daitezkeen baliabideak

**Udalerrikoak:** Berdintasun arloarekin koordinazioa egon daiteke, bertan antolatzen diren ikastaroetara bideratzeko edo Martxanterekin kontaktuan jartzeko. Beste arlo edo zerbitzu batzuekin ere koordinatzeko aukera dago.

**Aldundikoak:** Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetatik eskatu daitezke GFAk eskaintzen dituen baliabideak (arreta soziojuridikoa eta arreta psikologikoa).

**Erkidegokoak:** Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetatik aholkularitza juridikoa eskatu daiteke. Era berean, Osasun Zentroarekin edo Lanbiderekin ere koordinazioa egon daiteke.

Tartean **adingabeak** badaude, berriazko baliabideak jarriko dira martxan, bereziki arreta psikologikoa. Kasu larri batzuetan babes-neurriak badaude, emakumearekin adostu beharko da informazio hori nola eta nork helaraziko dion ikastetxeari.

- ❑ **Hezkuntza arloan,** Eusko Jaurlaritzak eta Hezkuntza Sailak sortutako gida hau jarraituko dute hezkuntza-zentroek: *"Indarkeria matxistaren biktima diren haur, nerabe eta emakumeei arreta emateko ikastetxeentzako jarraibideak"*<sup>12</sup>. Beharrezkoa bada, kasuak OGZetara bideratu eta horiekin koordinatuko dira, edota pediatrarekiko koordinazioa bermatuko da.
- ❑ **Berdintasun arlotik** egiten diren sentsibilizazio-jarduerak, ikastaroak edo programak kasuak detektatzeko sarbide bat izan daitezke. Hori dela-eta, kasuren bat ezagutzen denean OGZetara bideratu daiteke, zerbitzu horrekin koordinazioa mantenduz.
- ❑ **Osakidetzan** indarkeriaren prebentzioa eta detekzio goiztiarra garatzen da anbulatorioetan. Era berean, kontsultatik ere laguntza ematen da eta, behar izanez gero, OGZetara bideratzen dira, koordinazioa bermatuz. Horretarako, Osakidetzak gida bat<sup>13</sup> eta barneko protokolo bat ditu, profesionalak biktimak modu egokian artatu ditzaten. Kontuan hartuko dira zaurgarritasun bereziko egoerak: haurdunaldia, emakume migratuen egoera, arazo mental larriak, eta abar.
- ❑ Intzidentziaren lehen jakinarazpena jasotzen duen polizia-kidegoak agertutako pertsonari arreta emango dio, EBAn (etxeke indarkeriaren eta genero-indarkeriaren

<sup>12</sup> euskadi.eus ([Indarkeria matxistaren biktima diren haur, nerabe eta emakumeei arreta emateko ikastetxeentzako jarraibideak](#))

<sup>13</sup> [guia\\_vg\\_eu.pdf](#) (euskadi.eus)

delituagatiko espedienteak batera kudeatzeko sistema) jasotakoa kontuan hartuta.<sup>14</sup>

- ❑ **Ertzaintzak** bere protokoloa dauka. Biktima artatuko du, arriskuaren balorazioa eginez, arreta eskainiz eta, behar izanez gero, babes neurriak eskainiz. Polizia-patrula batek egin beharreko lekualdaketa EBaren arrisku-maila Ertaina, Altua edo Berezia denean baino ez da. Arrisku-maila oinarritzkoa den kasuetan, ez da beharrezkoa armak dituzten bi polizia egotea. Ez badu nahi, OGZetara bideratuko da kasua, zerbitzu honekin koordinatuz. Salaketa jarri ala ez, atestatua beti bidaliko da epaitegira eta kasuaren arrisku-mailari dagozkion babes-neurriak ezarriko zaizkio. Biktimei Bergarako komisarian eskaintzen zaizkien babes-neurriak epaitegitik emandakoen osagarriak izango dira. Biktimak onartzen badu, kasua GLKZra (SCUS) eta OGZetara bideratuko da eta zerbitzu horiekin koordinatu beharko da.

**Salaketa egon edo ez, zerbitzuekiko koordinazioa bermatuko da, eta kasuaren arabera beste zerbitzu hauetara bideratuko da:**

Erkidegoko zerbitzuak: aholkularitza juridikoa, Osasun Zentroa, Lanbide, OGZ.

Foru Aldundiko zerbitzuak: arreta soziojuridikoa, arreta psikologikoa, egonaldi ertain eta laburreko harrera-zerbitzua.

Jarraian, eskema eran azaltzen dira zerbitzu horien prozedurak.

---

<sup>14</sup> EAEn emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimentzako arreta koordinatzeko Erakundearteko III. Akordioa





#### 5.4. ARRETA LARRIALDIETAN

Egoera hauetan izaten da:



Erabaki bat hartu beharra dago berehala



Ekintzak ahalik eta lasterren eginez



Emakumeak bere integritaterako arriskua azaltzen du, edo arreta ematen dion pertsonak arrisku hori detektatzen du

Gainera, nahiz eta emakumeak ez identifikatu, honako egoera hauetako bat ere **larrialditzat jotzen da:**

- Emakumeak lesio nabarmenak ditu edo lesio horiek dituela susmatzen da.
- Emakumeak salaketa jarri du edo jarri nahi du erasotzailearen aurka.
- Emakumeak jakinarazi du etxetik irten nahi duela, eta beldur da erasotzailea ez ote den haserretuko, jazarriko duen, eta abar.
- Emakumeak harremana amaitu nahi du, eta hori arriskutsua da berarentzat.
- Emakumeak teknikariarengana jo du eta teknikariak antzematen du berehalako arriskua dagoela emakumearentzat.
- Emakumeak dibertsitate funtzionalen bat du eta horrek zaugarritasun handiagoko egoeran jartzen du.
- Emakumea haurdun dago eta bizi-arriskua dago berarentzat eta haurtxoarentzat.
- Emakumeak lana aldatu du edo berri batean hasi da, bere gaitasun ekonomikoa hobetuz, eta horren aurrean erasotzailea erne jarri da, emakumeak indarkeria-egoeratik irteteko aukera gehiago dituelako.
- Emakumeak bere familia berrelkartu nahi du, erasotzailea barne.
- Emakumeak familia-kide batzuk berrelkartu nahi ditu (ama, seme-alabak), baina ez erasotzailea.

- Emakumearen familiak erasotzailea berarekin berrelkartzea nahi/exijitzen du, edo erasotzaileak berak exijitzen du.
- Familia berrelkartu da eta erasotzailea emakumearekin bizi da berriro.
- Emakumeak familiari dirua bidali behar dio edo hori egiteko exijitzen zaio.
- Emakumeak harreman berria du eta erasotzailea jeloskor eta haserre dago.
- Emakumeak bizitza soziala berreskuratu du eta erasotzailea haserretu egin da, emakumearen gaineko kontrola galtzen duelako.
- Emakumeak laguntza eskatu die bere ingurukoei.
- Emakumeak beste herrialde batera joan nahi du, ikasten edo lan egiten jarraitzeko.
- Emakumeak bizitza berri bat hasi nahi du beste leku batean bere lagunekin batera.
- Emakumeak bizitza soziala berreskuratu du sare sozialen bidez, eta bere bizitzaren xehetasunak eta argazkiak partekatzen hasi da (bidaiak eta abar).
- Emakumeak gizarte-mailan (herrian) salatu nahi du erasotzailearekin bizi izan duen indarkeria.

Inguruabar horietako edozeinek hainbat bide irekitzen dizkio emakumeari, bizi duen indarkeria matxistaren egoeratik irteteko eta bere bizitzari berri ekin ahal izateko, indarkeriarik gabe. Horrenbestez, erasotzaileak kontrola eta boterea galtzean, horrek berarengan kontrol, jazarpen eta ezeztapen mekanismoak aktibatzen ditzake eta biktimak berri ere indarkeria-egoerak bizi ahal izango lituzke.

Gainera, baliteke emakumeak premiazko neurriei uko egitea (hala nola, larrialdiko abegi-etxe bat eskuratzeari edo salaketa jartzeari). Kasu horietan, teknikariek honako konpromiso hauek hartzen dituzte:

- Emakumeari eta, egonez gero, seme-alabei segurtasuna emango dien plan bat ezartzea: adibidez, emakumearekin adostea nolako denborak maneiatuko dituen, edo zeintzuk diren hurrengo emango dituen urratsak.
- Kasuaren jarraipena egitea.
- Beste zerbitzuekiko koordinazio egokia ziurtatzea

### Larrialdietan arreta eman dezaketen zerbitzuak

**UDALZAINGOA  
ETA ERTZAINZA**

**OSAKIDETZA**  
(Osasun Zentroa  
eta Ospitalea)

**OGZ - Oinarrizko  
Gizarte Zerbitzuak**

**GLKZ - Gizarte  
Larrialdietarako  
Koordinazio  
Zerbitzua (SCUS)**

### KONTUAN HARTU BEHARREKO ALDERDI BATZUK

Emakumeak izan dezakeen krisia lantzea, laguntza emanez eta berarengan eta bere menpekoengan egokitutako segurtasun-neurriei buruzko informazioa emanez.

Bereziki nabarmenduko da oso garrantzitsua dela baliabideekin harremanetan jarraitzea eta oinarrizko gizarte zerbitzuetara jotzea.

#### 5.4.1. Larrialdietan esku-hartzeko prozesuan laguntzea

Laguntza handiagoa behar izanez gero, oinarrizko gizarte-zerbitzuek eta urgentziatzko gizarte-zerbitzuek baloratuko dute laguntza hori beharrezkoa den ala ez. Polizia-patrula batek egin beharreko lekualdaketa EBaren arrisku-maila Ertaina, Altua edo Berezia denean baino ez da. Arrisku-maila oinarrizkoa den kasuetan, ez da beharrezkoa armak dituzten bi polizia egotea. Hala bada, Ertzaintzaren presentzia eta laguntza eskatu ahal izango da, eta ahal den guztietan lehenetsiko da polizia-bikotea kaleko jantziaz (paisanoz) joatea.


#### 5.4.2. Larrialdiko ostatua



#### 5.4.3. Adingabeentzako arreta

Larrialdi-kasuetan, arreta-prozesuak denbora luzea eman badezake, lehenetsuna emango zaio seme-alabak emakumeak egokitzen jotzen duen hurbileko pertsonaren batekin geratzeko aukerari. Hori ezinezkoa bada, seme-alabak foru-zerbitzuen tutoretzapean geratzeko dira aldi baterako, eta GLKZra (SCUS) eramango dituzte.

#### 5.4.4. Informazioa eta aholkularitza, eta bideraketa



#### 5.4.5 Larrialdiko arreta arlo ezberdinetan

Arlo edo eragile ezberdinek baliabide ezberdinak aktibatuta ditzakete kasu baten aurrean.

- ❑ **Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetatik**<sup>15</sup> emakumeari arreta emango zaio. Artapen egoera honetan euste-lanak egingo dira emakumearekin eta arriskua baloratuko da. Adingabeak tartean badaude GLKZra informatuko da eta, behar izanez gero, aldi baterako tutoretza kudeatuko da, ahal bada erreferentziako pertsona batekin. Hori ezinezkoa bada, GLKZk bere gain hartuko ditu adingabeak.

<sup>15</sup> Ordu eguz kanpo, GLKZ (SCUS) Zerbitzuetatik egingo da artapena

Kasuaren arabera, adingabeentzako larrialdiko harrera-zentro batera bideratu daitezke adingabeak. Artapenean lesioak antzematen badira edo horren susmorik badago, eta betiere biktimak nahi badu, Osakidetza lagunduko zaio. Beharrezkoa bada, Ertzaintzak lagunduko dio biktimari. Lesiorik ez badago eta salatu nahi badu, Ertzaintzara lagunduko zaio, epaitegira joateko.

Biktima artatzen duten Gizarte Zerbitzuetako operadoreak Ertzaintzarekin lankidetzan arituko dira, eta informazioa partekatuko dute ikerketari eta ez-zilegitasun penala argitzeari buruz. Berak esplizituki onartu ez duen informazioa partekatu behar izanez gero, zer helaraziko den eta zer ondorio izan ditzakeen jakinaraztea komeni da, harekiko lotura gordetzearen. (6.4.2. Indarkeriarik gabeko bizitzarako ibilbidea koordinatzeko jarraibideak)

Ez badu nahi, OGZrekin (bere ordutegiz kanpo GLKZrekin) koordinazioa bermatuko da. Ordutegitik kanpo GLKZtik eskainiko da arreta, eta larrialdia bideratu ondoren OGZtik egingo da jarraipena.

**Salaketarekin edo salaketa barik, zerbitzuekiko koordinazioa bermatuko da, eta kasuaren arabera beste zerbitzu hauetara bideratuko da kasua:**

Erkidegoko zerbitzuak: aholkularitza juridikoa, Osasun Zentroa, Lanbide, OGZak  
Aldundiko zerbitzuak: arreta sozio-juridikoa, arreta psikologikoa, egonaldi ertain eta laburreko harrera-zerbitzua.

- ❑ **Udaleko edozein zerbitzutan**, larrialdi baten aurrean OGZrekin kontaktatuko da, lehenengo arreta eman ondoren. Behar bada euste-lanak egingo dira, OGZrekin kontaktuan jarri arte. Ordutegitik kanpo, GLKZrekin kontaktatuko da.
- ❑ **Osakidetzan** arreta integrala emango da: arreta fisikoa, ginekologikoa, osasun mentalerako arreta eta arreta soziala. Artapena egin ondoren, lesioen parte bat beteko da eta erregistratuko da. Salatzeko erabakia hartzen badu, Ertzaintzara lagunduko zaio emakumeari. Ertzaintzatik epaitegira lagunduko zaio. Emakumeak ez badu salaketarik egin nahi, GLKZrekin edo OGZrekin koordinazio eta bideraketa egokia bermatuko da.
- ❑ Intzidentziaren lehen jakinarazpena jasotzen duen polizia-kidegoak agertutako pertsonari arreta emango dio, EBAn (etxeke indarkeriaren eta genero-indarkeriaren delituengatik espedienteak batera kudeatzeko sistema) jasotakoa kontuan hartuta, arriskuaren azken balorazioa erreferentzia gisa hartzeko.


- ❑ **Ertzaintzak** bere protokoloa dauka. Biktima artatuko du, arriskuaren balorazioa eginez, arreta eskainiz eta behar izanez gero babes neurriak eskainiz. Biktimak salaketa jarri nahi badu, epaitegira lagunduko<sup>16</sup> dio. Ez badu nahi, OGZtara bideratuko da kasua, zerbitzu honekin koordinatuz.

Jarraian, eskema eran azaltzen dira zerbitzuen prozedurak.

---

<sup>16</sup> Polizia-patruila batek egin beharreko lekualdaketa EBaren arrisku-maila Ertaina, Altua edo Berezia denean baino ez da. Arrisku-maila oinarrizkoa den kasuetan, ez da beharrezkoa armak dituzten bi polizia egotea.





### 5.5. SEXU-ERASOEN KASUETARAKO ARRETA<sup>17</sup>

Bi egoera bereiziko dira, kontuan hartuta sexu-erasoa gertatu denetik denbora gutxi igaro den (120 ordu/5 egun) edo 10 egun baino gehiago igaro diren.

#### 5.5.1. Gertatu berriak diren sexu-erasoen arreta

- ❑ Emakumearen krisiari, shock-egoerari eta/edo beldurrei erantzutea. Zehaztu behar da arretak **ez duela esan nahi salaketa jarri behar denik**.
- ❑ Gomendatu **EZ** dadila dutxatu, ez hortzak eskulatu, ez arropaz aldatu, ez jan, ez edan. Ospitalean **laginak hartuko** dira.
- ❑ Emakumea ez da behartu behar **salaketa egitera**, ez badu nahi. Jakinaraztea doako laguntza juridikoa jasotzeko aukera dagoela.
- ❑ Biktima adingabea bada, abisatu egin behar zaio familiari, legezko tutoreei edo Gipuzkoako Foru Aldundiko Adingabeen Zerbitzuari, eta bulego-ordutegian GLKZri, **laguntza emateko eta zerbitzuen berri emateko**.

#### 5.5.2. Gertatu berriak ez diren sexu-erasoen arreta<sup>18</sup>

Laginak biltzeko prozedura ez da egingo, baina, emakumeak hala nahi badu, osasun-zerbitzuekin eta zerbitzu psikologiko espezializatuekin koordinazioa egingo da.

Kasu guztietan, artatzen zaion lehenengo zerbitzutik **Ospitalera lagunduko diote**, betiere ezinbestekoa ez bada une horretan bertan artatzea.

Ondoren, arreta eman ziztaion lehen zerbitzu horretatik egingo da **jarraipena**.

<sup>17</sup> Atal hau eguneratu gabe dago, Sexu-askatasunaren Legea onartu arte eta sexu-erasoen kasuetarako krisi-zentroak sortu arte.

<sup>18</sup> Erasoa gertatu zenetik 10 egun baino gehiago igarotako guztiak.

Kasu horietan, honako zerbitzu hauek ematen dute arreta: Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak, Bergarako osasun-zentroa eta Arrasateko Osasun Mentaleko Zentroa.

### 5.5.3 Arreta sexu-erasoen aurrean


- ❑ **Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetatik**<sup>19</sup> arreta emango zaio emakumeari. Artapen egoera honetan euste-lanak egingo dira emakumearekin eta arriskua baloratuko da. Lan ordutegitik kanpo GLKZra bideratuko da. Larrialdia artatu eta gero, OGZetatik egingo da jarraipena, eta beharrezkoa balitz, OGZetatik emakumeari informazio hau emango zaio: Ez aldatu arropa, ez duxatu, ez garbitu hortzak.
- ❑ **GLKZ**tik emakumeari artapena emango zaio baldin eta OGZak lan ordutegitik kanpo badaude. Egoera honetan GLKZko adituak lekura hurbilduko dira, eta emakumeari eta ingurunekoei hasierako laguntza eta euste-lanak eskainiko zaizkie. Adingabeak badira, familiari edo tutore legalei abisatuko zaie eta GFAko Adingabeen Zerbitzura ere bai.
- ❑ **Osasun Zentroetatik**, bizi-arriskurik ez badago eta emakumeak berehalako arretarik behar ez badu, ospitalera lagunduko zaio, eta ospitaletik beren protokoloa aktibatuko dute. Ondoren, jarraipena lehenengo arretako kontsultatik egingo zaio.
- ❑ **Ertzaintzatik**, emakumeari hasierako arreta emango zaio, OGZetatik –edo, ordutegitik kanpo, GLKZtik– arreta eskainiko zaio emakumeari egoera egokian badago.
- ❑ **Hezkuntza Zentroetatik**, abisatu egingo zaio familiari edo tutore legalei eta OGZetara ere bai (GLKZra ordutegitik kanpo). Adingabeak eraso etxean sufritu badu OGZrekin kontaktatuko da (GLKZrekin ordutegitik kanpo). Era berean, eta beharrezkoa bada, Bergarako Ertzaintzako “hurbiltzailea”rekin kontaktatzeko aukera egongo da, ikastetxeetako erreferentea baita.

#### **Kasu guztietan lehenetsi behar da**

Informazioa ematea eta shock-a artatzea. Modu berean, arreta psikologikoa eta juridikoa eskaintzea. Zerbitzu guztietan eskaini behar dira OGZetako arreta eta laguntza zerbitzuak (edo haien lan-ordutegitik kanpo GLKZkoak)

Jarraian, eskema eran azaltzen dira zerbitzu horien prozedurak.

<sup>19</sup> Ordutegiz kanpo GLKZetatik egingo da artapena



## 6. ERAKUNDEEN ARTEKO KOORDINAZIOA

Erakunde sinatzaileen arteko koordinazioa hobetzeko eta protokolo honen etengabeko jarraipena eta ebaluazioa egiteko, parte hartzen dugun eragileen arteko Koordinazio Mahaiaren funtzionamendua jarraitu, indartu eta bermatu egingo da.

### 6.1. AKORDIOAK BETETZEKO ETA HORIEN JARRAIPENA EGITEKO KOORDINAZIO TEKNIKOKO MAHAIA

<p>Honako honek deitu eta dinamizatzen du:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Berdintasun-teknikaria</li> </ul>	<p>Honako hauek osatzen dute:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Bergarako Berdintasun-teknikaria</li> <li>2. Udalerriko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen ordezkaria</li> <li>3. Bergarako Udaltzaingoa</li> <li>4. Bergarako Ertzain-etxeko Ertzaintzan genero-indarkeriako eta sexu-erasoetako kasuei arreta emateko ardura duen agentea</li> <li>5. Bergarako Osasun-zentroko ordezkaria</li> <li>6. Hezkuntza-zentroetako ordezkariak</li> </ol>
<p>EGINKIZUNAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Mahaiaren bileretarako deia egitea, akta egitea eta bileren ondoren zabaltzea</li> <li>✓ Protokoloaren jarraipena eta funtzionamendu egokia bermatzea.</li> <li>✓ Urteko datuen txostena biltzea eta egitea</li> </ul>	<p>EGINKIZUNAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Protokoloaren garapena</li> <li>✓ Dokumentua nor bere lan-eremuan zabaltzea</li> <li>✓ Gainerako mahaikideekin batera arreta eta koordinazioa ebaluatzea</li> <li>✓ Datuak biltzea beren jardueraren eremuetan</li> </ul>

### 6.1.1. Koordinazio teknikoko mahaiaren eginkizunak

Erantzun koordinatua ematea	Datuen txostena egitea	Protokoloaren garapena bermatzea	Prozedurak berrikustea eta prestakuntza jasotzea	LGTBIQA+ kolektiboarekiko jarduketak hobetzea	Bat-batekoak erabaki
Aztertea, jarraipena egitea eta erantzun koordinatua ematea, gertatzen diren zerbitzuetan zailtasunen bat duten kasuak kontuan hartuta	Tartean diren zerbitzuek biltzen dituzten datuak aztertea. Horiek sistematizatzea eta urteko txostena egitea, mahaiaren berrikusiko dena hobekuntzak baloratzeko	Eguneroko jardunaren eta koordinazio-mahaiaren bidez	Indarkeria matxistaren kasuetan jarduteko modua eta egindakoak berrikustea eta prestakuntza jasotzea. Erabakiak urtero berrikusiko dira	Kolektibo horren aurkako erasoei aurre egiteko jarduketak hobetzea	Berehalako erantzuna behar duten alderdi funtzionalak erabakitzea

#### **Koordinazio Mahaiaren aldizkakotasuna eta deialdia**

- **SEI HILEAN BEHIN** bilduko da protokoloa abian jartzen denetik aurrera.
- Behar izanez gero, ezohiko bilerak ere egingo ditu.
- Berdintasun-teknikariak ohiko bileretarako deia egingo du, idatziz, 7 egun lehenago.
- Edozein parte-hartzailek deitu ahal izango du urgentziaz ezohiko bilera bat.

## 7. UDALAREN ERABAKI ETA ERAKUNDEAREN EKINTZA INSTITUZIONALEI BURUZ

Bergarako Udalak, indarkeria matxistaren aurkako borrokan engaiaturik eta erabateko gaitzespen-kultura sortzeko ekintzak garatzeko asmo sendoa izanik, konpromisoa hartzen du udalerrian indarkeria matxistarekin zerikusia duten kasuen aurrean horien aurkako erantzun instituzional egokia eta beharrezkoa emateko.

Zentzu honetan, udalak ezagutzen dituen kasuen aurrean erantzun proportzionatua emango du, etengabeko hausnarketa-lanari lotua, **biktimentzako erreparazio-**ekintzatzat hartu ahal izan dadin, eta aldi berean, biktimei baldintzarik gabeko babes emango die, eta herritarrei dei egingo die babes horrekin bat egiteko eta udalerriarekin zerikusirik duten indarkeria-adierazpen guztiak baztertzeke.

Erantzun instituzional honek helburu hauek bete nahi ditu:

- Biktimari, haren senideei eta ingurukoei laguntza adieraztea, biktimak jarraitu beharreko urratsei buruz hartutako erabakia ere errespetatuta.
- Baliabide publikoak haren esku jartzea hasiera-hasieratik.
- Indarkeria hori publikoki arbuiatzea, herritarrak sentsibilizatzeko, indarkeriaren egiturazko azterketa eginez, unean uneko gertaeretatik haratago.

### 7.1. ERANTZUN INSTITUZIONALA BERGARAKO UDALERRIAN

Bergaran dagoeneko erantzun hau eratuta dago Udalaren eta mugimendu feministako Martxanterak taldearen artean, eta horrela islatzen da dokumentu ofizial batean. Jarraibide horietan oinarrituta, protokoloaren atal honek gaur arte egindako lana osatzeko helburua du.

Udalerrian, indarkeria matxistarekin zerikusia duten gertakariak daudenean, herritarren, mugimendu feministaren, politikarien eta udal teknikarien arteko dinamikak sortzen dira. Dinamika hauek ez dira beti aldekoak izango erantzun publiko instituzionala aktibatzeke, biktimei eragindako kaltea erreparatzeko eta bizitako indarkeria salatzeke.<sup>20</sup>

Gertaera horiek ematen direnean, ez da beti ingurune egokia izaten biktimak erantzun publikoa abian jartzea erabakitzeke. Batzuetan, gertakarien zurrumurruek sortzen dira,

---

<sup>20</sup> Kontuan izan behar da erakunde publikoak gaiari buruzko etengabeko hausnarketa egiteko konpromisoa hartu behar duela, erantzun egokiena bilatzeko helburuarekin.



horiek biktimaren testigantza eta kontakizuna zalantzan jartzen dituzte, emakumea birbiktimizatu egin daiteke eta ingurugiro bortitz bat sortu.

Era berean, horrelako testuinguruetan gerta liteke jendeak edo inguruko batzuek erasotzailearen ekintzak justifikatzea edo biktimak kontatzen dituen gertakariei garrantzia kentzea. Giro honetan, mugimendu feministak, biktimarekiko elkartasuna eta babesa erakusteko, erakunde publikoaren erantzun azkarra eta irmoa eska dezake. Komunikabideetatik ere presioa sortu daiteke, eta baliteke horren ondorioz erakunde publikoaren erantzun publikoa egokiena ez izatea.

Hori dena presioa eragiten duen ingurugiro batean gertatu ohi da, eta horretan ezinbestekoa da biktimaren eritmoa eta erabakiak errespetatzea, betiere gertakarien aurrean erakunde publikoen erantzukizuna ahaztu barik. Beraz, erantzun publikoa lantzerakoan, argi izan behar dira herritarrei dei egiteko helburu nagusiak:

1. Biktimari eta haren inguruari **elkartasuna eta babesa adieraztea**. Horretarako, lehenetsua izan behar da biktimak behar duen arreta izatea; hau da, indarkeria-kasu bat ezagutzen denean, lehen urratsa da biktimaren eta horren ingurunearen egoerari eta premiei erantzutea, horretarako dauden beharrezko zerbitzuak aktibatuz, bai eta *ad hoc* laguntzekin erantzun ere baldin eta egoera horri erantzuteko ibilbide argirik ez badago.
2. Era berean, kontuan hartu behar da erakundeen erantzun publikoa **erreparazio neurri** bat dela, eta, beraz, beti biktimaren borondatea errespetatuz egin behar dela; horrenbestez, biktimek aukera izan behar dute egin nahi dutena eta nola egin nahi duten adierazteko.
3. Indarkeria matxistaren **gaitzespen publikoa** egitea. Ildo horretan, herritarren erantzunak funtzio pedagogikoa bete behar du, herritarrak sentsibilizatzeko eta indarkeria matxistaren aurrean kontzientziazteko. Horretarako, alde batetik, indarkeria matxistaren egitura-izaera nabarmendu behar da udalerriek herritarrei zuzentzen dizkieten mezuetan, oinarrizko informazioa transmitituz, indarkeria mota bakoitzaren izaera eta ezaugarriak ulertzeko; eta, beste alde batetik, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunaren esparruan betetzen duen funtzio soziala ere nabarmendu behar da.




## 7.2.- ERAKUNDEEN ERANTZUN PUBLIKOA ANTOLATZEA, BETIERE KASUA PUBLIKOA DENEAN EDO EMAKUMEA ERANTZUN PUBLIKOA AKTIBATU NAHI DUENEAN

Bergarako Udaleko teknikari, politikari edo mugimendu feministak<sup>21</sup> udalerriarekin zerikusia duen indarkeria matxistaren kasuren baten berri badu eta informazio iturri fidagarri<sup>22</sup> batetik badator (biktima berak esan duelako, haren inguruneak, artatu duen erakunde batek edo mugimendu feministak, edo bestela, eraso esparru publikoan gertatu delako), udal teknikari eta dagokion zinegotziaren artean informazioa baloratuko dute eta, beharrezkoa izanez gero, konfirmatu egingo dute, batez ere informazioa komunikabideetatik edo sare sozialen bitartez jaso bada.

Informazioa egiaztatu ondoren, protokoloa aktibatu egingo da –publikoa denean edo emakumeak hala nahi duenean– honako kasu hauetan:

- o Eraso udalerrian gertatu bada.
- o Eraso udalerritik kanpo gertatu bada baina emakumea edo erasotzailea bertakoak badira edo udalerriarekin lotura badute.
- o Eraso eskualdean gertatu bada.
- o Hirugarren pertsona bati eraso egin badiote biktima defendatzeagatik edo laguntzeagatik.
- o EAEn emakumeren bat edo haren seme-alabak erail badira.


Egoera horietako bat gertatzen bada, edo zerrenda honetan jasota ez dagoen beste bat gertatzen bada baina erantzun publiko instituzionala emateko modukoa bada nahikoa larritzat jotzen delako, lehenengo urratsak emango dira:



<sup>21</sup> Martxanterak talde feministak bi emakume izendatuko ditu Udalarekin komunikazioa izateko

<sup>22</sup> Adostu beharko da "iturri fidagarri" horren esanahia testuinguru honetan.

Garrantzitsua da adieraztea inplikaturako eragileen arteko koordinazio lanean biktimaren **infinitatea eta integritate emozionala zaintzea gailendu behar dela**, eragile bakoitzaren zeregina eta lana zehaztuz, betiere gehiegikeriarik gabe. Ildo horretan, inplikaturako pertsonak jakin behar dute zein den euren rola eta non amaitzen den beren funtzioa, inplikaturako gainerako alderdien lana ez oztopatzeko.



### Erasotzailea eta haren ingurune hurbila

Lehen fase honetako lehentasuna biktimarekin elkarrizketa hastea da, baina horrek ez du esan nahi udalak ustezko erasotzaileari eta haren gertuko inguruari ezin dionik entzun. Hala ere, udalak argi izan behar du ezin duela epailearen rola bere gain hartu, ezta bere iritzi pertsonalenetan oinarritutako erabakirik hartu ere. Horregatik, nahasmendua eta zalantzak daudenean garrantzitsua izan daiteke kanpoko aditu baten ikuspegia izatea<sup>23</sup>

<sup>23</sup> Foru Aldundiako Berdintasun Sailarekin harremanetan jartzeko aukera egongo da.


## Kanpoko laguntza eta aholkularitza

Lehen uneetan hartzen diren erabakiak garrantzitsuak dira, horregatik ez da zalantzarik izan behar kanpoko laguntza edo aholkularitza eskatzerakoan. Erantzun publikoari buruzko edozein zalantza izanez gero, jarri harremanetan Gipuzkoako Foru Aldundiko Berdintasunerako Organoarekin.

### 7.2.1 Erakundeen erantzun publikoaren antolaketa: Koordinazio mekanismoak aktibatzen dira

Koordinazio-mekanismoak abian jarriko dira behin kasua baloratu ondoren, biktimari eta haren inguruneari behar diren laguntzak abian jarri ondoren eta hark erantzun publiko instituzionala ematea garrantzitsua dela uste duenean. Horrek ez du esan nahi biktima gehiago zamatatu behar denik, arduraren gehiago bere gain jarritz.

Komeni da koordinazio-egiturak gertaerak gertatu aurretik egotea, baina horrela ez bada, koordinazio-mahaia ezar daiteke eta bertan politikariek, teknikariek eta mugimendu feministak parte hartuko dute.



- Parte hartzen duten eragile guztientzat argi geratu behar da erantzunaren erabakia biktimak duela, eta politikariek biktimarekin eta haren ingurunearekin koordinatuta adostutako erantzun instituzionala erabakitzen dute, udal teknikari eta mugimendu feministaren iritzia kontuan izanda.
- Erantzun publikoa martxan jartzeko bilera bat egingo dute zinegotzi arduradunak<sup>24</sup>, indarkeria kasuak artatzen dituen teknikariak eta Berdintasun teknikariak, egoera hauetan adostutakoa martxan jartzeko.
- Zinegotzi arduradunak oposizioari gertatutakoaren berri emango dio.
- Zinegotzi honek edo Berdintasun teknikariak udaleko prentsa-arduradunari jakinaraziko dio, eta adostutako oharra argitaratuko da (sare sozialetan/prentsan).

Garrantzitsua da koordinazio horretan beste alderdi batzuk ere kontuan hartzea.



<sup>24</sup> Berdintasun zinegotzia izango da erreferentziazko politikaria eta arduraduna indarkeria matxista kasu baten aurrean

### 7.3. INDARKERIA MATXISTAKO KASUEN AURREAN ERANTZUN PUBLIKOAK EMATEKO MODUAK

Aipatu den moduan, dagoeneko Martxanterak talde feministaren eta Udalaren arteko dokumentu ofizial bat dago, erantzun publikoa nola gauzatuko den adostuz. Dokumentuan adostu diren akordioak protokoloaren eranskinetan (5. Eranskina) ikus daitezke.

Erantzun publiko instituzionalaren eragina baloratu ondoren, adostutako jarduerak gauzatuko dira, honako irizpide hauek kontuan hartuta:

**Erakundeen jardun publikoak modu koordinatuan planifikatzea, espero diren emaitzak lortzen direla ziurtatzeko.**

**Garrantzitsua da erantzun publikoan mezu bat adostea, indarkeriaren egitura-izaera eta funtzio soziala azpimarratuz**

Erantzun publikoa antolatzerakoan, honako hauek hartu behar dira kontuan:

- Testuingurua: Gertaeratik haratago, azaldu behar da indarkeria matxista normalizatu den eta onartezina den gizarte batean bizi garela.
- Azaldu indarkeriaren arrazoiak: Azaldu egin behar da, biktimaren eta/edo haren ingurunearen eta familiaren integritatea arriskuan jarri gabe.
- Eraso adingabeen artean gertatu bada: *Adingabearen interes gorenaren printzipioa* errespetatuz, familiarekin edo legezko tutoreekin harremanetan jarri behar da, eta erantzun publiko mota baloratuko da. Biktimari eta haren inguruneari arreta berezia emanago zaio, eraso egin duenari, haren inguruneari, familiari eta erreferentzia-taldeari arreta ematean<sup>25</sup>.
- Aurreko kasuan, garrantzitsua da erantzun publiko bat egitea, adingabe guztiak babestearen garrantzia azpimarratzeko, eta bereziki azpimarratzeko babes hori, kasua hedabideen eta sare sozialen bidez zabaldu bada.

---

<sup>25</sup> Adingabeen kasuan, garrantzitsua da zigor-neurriak bakarrik ez ezartzea, erantzun-ekintzak ingurunean sentsibilizazio-lan pedagogikoa egitera bideratuta, eta biktimari eta haren inguruneari zuzendutako erreparazio-neurriak abian jarrita.

Gainera, bi motatako erantzun publikoak daude:

1. Gertaera **zehatz bati erantzun**, biktimaren edo haren inguruko baimenarekin.
2. Indarkeria matxistaren kasu guztiak salatzeko udalaren **ekintzak publiko egitea**.

Erantzun horiek ekintza hauen bidez martxan jar daitezke:

- Kasu bat behar bezala ezagutzen denean, erakundeek biktimei laguntza ematen dietela adieraziz, egoeraren arabera egokienak diren bideak erabiliz. **Laguntza horrek ez du zerikusirik biktimak salaketa jarri izanarekin**, ulertzen baita neurri hori emakume bakoitzak bere inguruabarren arabera baloratzen duela.
- Emakumeei, senideei eta hurbileko beste pertsona batzuei **beharrezko laguntza** bermatzea, udal-baliabideen eta aktibatu daitezkeen beste batzuen bidez. Kasua eskualdean gertatzen bada eta gertatutako udalean ez balego baliabide egokirik, udalen arteko elkarlana sustatuko litzateke, familiari beharrezko arreta eskaintzeko.
- **Indarkeria matxistaren kasu partikularrak gaitzesten direla jakitera emanez**, biktimen edo gertuko pertsonen baimenarekin, eta jarduteko moduarekin ados daudela ziurtatuz.
- **Erantzuna berehalakoa izango da**, baina horrek ez du esan nahi egitateak ezagutzen diren egun berean edo hurrengoan eman behar denik. Zentzuzko denbora itxaron daiteke, biktimek jarduketa horiek baloratu ahal izateko.
- Erantzun bat emateko herritarren eskaerak jasotzen badira eta biktimaren baimenik ez badago, **egoera aipatu ahal izango da jakinarazpen batean**, eta bertan jakinaraziko da udala barne-lana egiten ari dela eta biktimarekiko harremanetan dagoela.
- Egun berezi batzuetan **jendaurreko ekitaldiak egingo dira**: martxoaren 8an, emakumeen nazioarteko egunean, azaroaren 25ean (emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko nazioarteko eguna) eta ekainaren 28a (LGTBIAQ+ harrotasunaren nazioarteko eguna).
- **Kontu-ematea egingo da urtero**, eta datu batzuk argitaratuko dira: kasu kopurua, udalak emandako erantzuna, eskainitako zerbitzuak eta abar.


Erantzun publikoa honako ezaugarri hauek betetzen direnean aktibatuko da:

- Erasoa udalerrian gertatzen denean.
- Erasoa udalerritik kanpo gertatzen bada, baina emakume-biktima edo erasotzailea udalerrikoak badira edota edota udalerriarekin lotura badute.
- Erasoa eskualdean gertatu bada.
- Biktima defendatzeagatik edo hari laguntzeagatik hirugarren pertsona bati eraso egin badiote.
- Euskal Autonomia Elkartearen emakumeren bat edo haren seme-alabaren bat erail badira.

Jarrian, erantzun publikoko agertoki hauek proposatzen dira:

## 0. EGOERA- EMAKUNDEK AKTIBATZEN DUENA

(JARRAIPIEN BATZORDEAREN 2013ko MAIATZEKO ERAKUNDE ARTEKO II. AKORDIOAREN JARRAIPIEN AKORDIOA, ETXeko TRATU TXARREN ETA SEXU ERASOEN ONDORIOZKO HERIOTZEN AURREAN JARDUTEKO PROZEDURA) IKUSI ERANSKINA






### 1. EGOERA

Erasoa udalerrian gertatu bada; udalerritik kanpo gertatzen bada baina emakumea edo erasotzailea bertakoak badira edo udalerriarekin lotura badute; eraso eskualdean gertatzen bada; hirugarren pertsona bati eraso egin badiote biktima defendatzeagatik edo laguntzeagatik; edo EAEn emakumeren bat edo haren seme-alabak erail badira aktibatuko da. Testuinguru honetan erasoak modu desberdinetakoak izan daitezke:

- Bikotekidea edo bikotekide ohia ez den gizon batek emakume bat erailteza
- Bikotekideak, bikotekide ohiak, senideak, ezagunak edo ezezagunak emakume bat hiltzen saiatzea.
  - Genero-indarkeriaren biktima den emakume baten seme-alabak hiltzen saiatzea.
  - Indarkeria sexistaren biktima bat aurreko eraso baten ondorioz hiltzea, ez berehala.
- Pertsona bat indarkeria bikarioagatik erailteza (hau da, biktima den emakume bati mina emateko)



## 1. ESZENATOKIAK HURRENGO KAUSETARA EGOKITU AHAL DITU ERANTZUNAK

- Emakume biktimaren integritate fisikoa arriskuan jartzen duen lesio larriak eragiten duen eraso.
- Eraso sexualak edo erasoarekin ematen diren eta eraso larriagotzen duten beste egoera batzuk.
- Gune publikoetan eta beste pertsona batzuen aurrean gertatu diren erasoak.
- Bere ezaugarriak direla eta, udalerrian alarma soziala piztu ahal duten erasoak.
- LGTBQIA+ kolektiboko pertsonen eraginak edozein eraso.
- Biktimak bere kasua publiko bihurtzea nahi ez duen erasoetan, baldin eta bere izena eta erasotzailearena etengabe aipatzen badira, eta Udalak komunikatu baten bidez, zabalduko zurrumurrak eta balorazioak geldiarazi behar baditu.
- Indarkeria matxista egoera guztietan, larria izanda ala ez, baldin eta, indarkeria horren ezaugarriak eta eragina baloratu ondoren, eskubideak bereziki urratu direla uste bada eta aurreko puntuetan jasota ez badago.

### 7.4 ERAKUNDEEN ERANTZUNAREN JARRAIPENA

Finkatutako helburuak bete direla eta erakundeen erantzuna finkatutako irizpideen eta printzipioen arabera eman dela egiaztatu ahal izateko, ezinbestekoa da horien jarraipena egitea.

Erantzun publikoaren jarraipenak honako helburu hauek izango ditu:

- Biktimei eta haien familiei arreta emateko adostutako neurriak aurrera eraman direla egiaztatzea.
- Erasoaren hasierako inpaktua pasatu ondoren sortu diren beste premia batzuk ikertzea, baita horiek nola erantzun diren eta/edo artatu behar diren ere.
- Kasu bakoitzean edo urtebetean gertatu diren kasuetan egin daitezkeen konponketa-neurriak baloratzea.
- Behar diren aldaketak egiteko erabakitakoaren eraginkortasuna eta jarduna ebaluatzea.
- Ziurtatzea gai honetako ikaskuntzak sistema hobetzeko txertatzen direla, eta ezagutza eta informazioa sortzen direla, horien baliozkotasuna integratu eta ebaluatzeko.

## I. ERANSKINA

### 1.1. GLOSARIOA

**OGZ (SSB):** Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak (SSB: Servicio Sociales de Base)

**GLKZ (SCUS):** Gizarte Larrialdirako Koordinazio Zerbitzua (OGZak itxita daudenean larrialdi sozialak kudeatzen dituen Gipuzkoako Foru Aldundiko zerbitzua)

**BLZ (SAV):** Biktimari Laguntzeko Zerbitzua (BLZ). Arlo desberdinetako langileek (legelari, gizarte-langile eta psikologoek) osatutakoa. Justizia Zuzendaritzak delituen biktimen eskura jarritakoa da.

**SATEVI:** Etxeko indarkeriaren edota sexu-erasoen emakume biktimentzako informazio- eta arreta-zerbitzua, 24 ordukoa.

**GFA (DFG):** Gipuzkoako Foru Aldundia

### 1.2. 2013KO MAIATZEKO ERAKUNDEEN ARTEKO II. AKORDIOAREN JARRAIPEN BATZORDEAREN AKORDIOA. ETXEKO TRATU TXARREN ETA SEXU-ERASOEN ONDORIOZKO HERIOTZEN AURREAN JARDUTEKO PROZEDURA

#### **Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen ondoriozko heriotzen aurrean jarduteko prozedurak**

Alde batetik, biktimen familiei eta biktima diren seme-alaba adingabeei —halakorik egonez gero— instituzioen gaitzespena eta laguntasuna erakusteko ezartzen dira prozedura hauek, eta, bestetik, instituzioen laguntza, esku-hartzeak eta instituzio arteko koordinazioa hobetzeko, emakume gehiagoren heriotzarik gertatu ez dadin. Egoera hauetan jarri behar dira martxan:

- 1) Etxeko tratu txarrak emanez, bikotekideak edo bikotekide ohiak emakume bat hiltzen duenean.
- 2) Sexu-erasoa tarteko, emakume bat hiltzen dutenean.

#### **Gizartean eragin handia izaten duten kasu oso larrietan biktimari instituzioen gaitzespena eta laguntza erakusteko prozedurak**

Eman beharreko pauso nagusiak:

- a) Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak emakume baten heriotzaren berri izaten duenean, heriotza hori etxeko tratu txarren edo sexu-erasoaren ondoriozkoa izan dela egiaztatzeko aztarna nahikoak daudela ikusten badu, berehala harremanetan jarriko da Jarraipen Batzordeko lehendakariarekin. Akordioan parte hartzen duen beste edozein instituziok ere jo dezake Jarraipen Batzordeko

lehendakariarengana, prozedura hau martxan jartzea eskatzen duen heriotzaren baten berri baldin badauka. Horrelako kasuetan, lehendakaria Segurtasun Sailarekin jarriko da harremanetan, hark zehaztu dezan prozedurarekin jarraitu behar den ala ez.

- b) Gertakariak egiaztatu eta gero, Jarraipen Batzordeko lehendakariak biktima errolatuta dagoen udala jakinaren gainean jarriko du lehenbailehen, eta, behar izanez gero, gertakaria gertatu den herriko udala eta Batzordean parte hartzen duten gainontzeko instituzioak ere bai.
- c) Biktima errolatuta dagoen udalak osoko bilkurarako deia egingo du; gaitzespena adierazteko eta familiari laguntasuna erakusteko adierazpen instituzionala onartuko du, eta egin beharrekotzat jotzen dituen ekitaldietan (elkarretaratzeak, manifestazioak, eta abar) parte hartzeko deia egingo die herritarrei, ahal bada elkarte-mugimenduaren adostasunarekin eta betiere guztiaren berri biktimaren familiartekoei emanez. Eusko Jaurlaritzako, Foru Aldundiko, Legelarien Euskal Kontseiluko eta dagokion sendagileen elkargoko ordezkari politiko bana, gutxienez, joango da ekitaldi horietara. Horrez gain, udalak biktimaren familiartekoen eskura jarriko ditu gizarte-baliabideak, eta, beharrekotzat jotzen badu, herri-akzio gisa agertuko da.
- d) Lehendakaritza biktimaren familiartekoein harremanetan jarriko da, Emakundeko zuzendariaren bidez —eta, bestela, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiko titularraren bidez—, familiari laguntasuna eta elkartasuna adierazteko.

### **Biktimaren familiari, biktima diren seme-alaba adingabeei eta beste biktimei ematen zaien laguntzaren koordinazioa**

Jarraipen Batzordeko lehendakariak bideratuko du inplikaturik dauden instituzioen arteko koordinazioa, biktimaren familiari eta haren inguruneari, biktima diren adingabeei eta —egonez gero— beste biktimei eman beharreko laguntza guztia emateko eta eskaini beharreko zerbitzuak eskaintzeko.

### **Esku-hartzeak eta/edo biktimei eskaintzen zaien arreta hobetzeko prozedura**

- a) Kasuan inplikazio zuzena duten erakundeez osatutako talde batek aztertuko du kasu zehatz bakoitza, eta Emakundek koordinatuko du prozesua. Aipatutako azterketan, kasuaren historia kronologikoa egingo da: edozein administrazio edo zerbitzu publikok emakumearen berri lehenengo aldiz izaten duenetik hasita emakume horrek izan duen ibilbide guztia bilduko da, edozein administrazio edo zerbitzu publikorekin izan dituen kontaktu guzti-guztiak barne.

Ibilbidea, oso-osorik, dokumentu batean jasoko da eta hori erabiliko da hobetu beharreko alderdiak ezartzeko oinarritzat. Dokumentu hori, gero, Jarraipen Batzordeari bidaltzen zaion txostenari gehituko zaio.

- b) Jarraipen Batzordeak egoki ikusten badu, txostena STTk berriz aztertu ahal izango du, hobetzeko proposatu diren alderdiak berraztertzeko.

Azkenik, Jarraipen Batzordeak bide emango dio txostenari, bertan biltzen diren hobekuntzak gauzatzeko eskatuz inplikaturata dagoen administrazio edo zerbitzu publiko bakoitzari.

## 2. ERANSKINA

### 2.1 UDALEKO, FORU ALDUNDIKO ETA AUTONOMIAKO BALIABIDEAK

#### **Bergarako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak**

E-posta: [ongizatea@bergara.eus](mailto:ongizatea@bergara.eus)

Telefono zenbakia: 943 77 91 00 eta luzapena: 1210

Ordutegia: Astelehenetik ostiralera 8:30etatik 13:30era arte

#### **Berdintasun Zerbitzua**

E-posta: [berdintasuna@bergara.eus](mailto:berdintasuna@bergara.eus)

Telefono zenbakia: 943 77 91 00 eta luzapena: 1218

Ordutegia: Astelehenetik ostiralera 8:30etatik 13:30era arte

#### **Udaltzaingoak**

E-posta: [udaltzaingoa@bergara.eus](mailto:udaltzaingoa@bergara.eus)

Telefono zenbakia: 943 77 91 06 edo 092

Ordutegia: 06:00etatik 22:00ak arte

#### **Telefono bidezko 24 orduko arreta-zerbitzua: 900 840 111(SATEVI)**

Zerbitzuak Autonomia mailako estaldura du, eta doakoa da. Zerbitzu hori eguneko 24 orduetan dago erabilgarri, urteko 365 egunetan. Gainera, hainbat hizkuntzataraz itzultzeko aldibereko zerbitzua eskaintzen du, eta entzumen-desgaitasuna duten pertsonentzat eskuragarri dago.

- Informazio-baliabide hori ere eskuragarri dago indarkeriaren biktima den emakumeari laguntzeko moduari buruzko informazioa nahi duten senide, lagun eta beste pertsona batzuentzat.
- Baliabideak, halaber, hainbat esparrutako profesionalen informazio-beharrei erantzuten die.
- Zenbaki horretara datoz 016 telefono-zenbakiaren deiak, Estatuaren eskumeneko telefonoa. Garrantzitsua da emakumeei ohartaraztea 016 zenbakiak telefonofakturan aztarnarik uzten ez badu ere, deien erregistroan agertzen dela, bai mugikorrean, bai telefono finkoan; beraz, deia egin ondoren ezabatu egin behar da.

**Gipuzkoako Gizarte Larrialdietako Foru Zerbitzua: 24 orduko arreta. 943 224 411/ 112 (SOS Deiak)**

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuak zerbitzu bat du, Gipuzkoan etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria bizi dituzten emakumeen premiazko segurtasun-eskaerei erantzuten diena. Egoeraren balorazioa egin ondoren, hala eskatzen bada, harrera-baliabidera lagunduko zaio emakumeari, haren bizilekuaren arabera. Ordutegia eguneko 24 orduetan dago eskuragarri urte osoan.

**Biktimari Laguntzeko Gipuzkoako Doako Zerbitzua (BLZ). 900 100 928**

Zerbitzu hori Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justizia Sailaren mende dago. Aurrez aurreko zerbitzua da, aurretiko hitzorduarekin.

**Gipuzkoako Foru Aldundia, Gizarte Politikako Departamentua, Gizarte Larrialdietako eta Indarkeria Matxistaren Biktima diren Emakumeentzako Arretako Atala. 943 113 176/ 943 112 572.**

Aldundien arreta sozio juridikoko eta psikologikoko baliabideak koordinatzen ditu, banakakoak zein taldekoak, egonaldi labur eta ertainekoak, eta baita autonomia-pisuak eta esku-hartze sozio edukatiboko pisuak ere.

«Urrats» Larrialdietako Harrera Zentroak berehalako harrera ematen die Gipuzkoan genero-indarkeriaren eta sexu-erasoen biktima izan diren eta beren bizilekua utzi behar duten emakume guztiei, eta baita eragindako emakumearen mendeko familia-unitateko pertsoneri ere. Baliabide hori Gipuzkoako Gizarte Larrialdietako Foru Zerbitzuaren (943 224 411) edo oinarrizko gizarte-zerbitzuen bidez eskuratzen da.

**Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 2.Epaitegia (Bergara). 943 038 051**

Legezko prozedurak izapidetzen dituzte inguruan gertatzen diren genero-indarkeriako kasuetan.

**Debagoieneko Eskualdeko Ospitalea (OSI DEBAGOIENA). 943 035 300**


**Bergarako Ertzaintza Etxea (112/ 943 534 720)<sup>26</sup>**

<b>ARLOEN EGINKIZUNAK</b>			
<b>Herri-segurtasuna</b>	<b>Ikerketa-arloa</b>	<b>GI/EI arloa</b>	<b>Inteligentzia-arloa</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Biktimei larrialdiko laguntza ematea</li> <li>• Erasotzailearekiko jarduerak</li> <li>• Arriskuaren hasierako balorazioa</li> <li>• Prebentzio-jarduerak</li> <li>• Biktimaren babeserako beraien laguntza beharrezkoa den EI/GI kasuetan, horien berri emango zaio Udaltzaingoari</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Prebentzio-eginbideak: Salaketa, babes-agindua, atestatua, epaiketa azkarra.</li> <li>• Dauden laguntza-baliabideei buruzko aholkularitza</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Arrisku-maila eguneratzea</li> <li>• Biktimari auto-babesari buruzko prestakuntza ematea</li> <li>• Biktimari aldian behin deitzea</li> <li>• Ausazko bisitak</li> <li>• Elkarrizketak biktimarekin eta erasotzailearekin</li> <li>• Gizarte-zerbitzuekiko koordinazioa eta informazio-trukea</li> <li>• Prebentzioaren plangintza</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Udaltzaingoarekin koordinatzea eta biktimari zein erasotzaileari buruzko informazioa helaraztea, baita epaitegiak emandako babes-neurriak ere.</li> <li>• Biktimen babeserako lagungarriak izan daitezkeen informazioak helaraziko zaizkio Udaltzaingoari</li> </ul>

<sup>26</sup> Ertzaintzak bere egituraren baitan daukan arloko sailkapenen eginkizunak zerrendatzen dira. Komisaldegi guztietan daukaten sailkapena izaten da.



## 2.2 ARLO EZBERDINETAKO BALIABIDE INTERESGARRIAK



Genero indarkeriaren eta sexu erasoen aurrean Euskadin nola jardun jakiteko jarduketa-gida:

[guia\\_vg\\_eu.pdf \(euskadi.eus\)](http://euskadi.eus/guia_vg_eu.pdf)



Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko indarkeria matxistaren biktima diren neska, mutil, nerabe eta emakumeei laguntza emateko ikastetxeetan jarduteko jarraibideak.

19. orrialdean, D adibideari dagokionez: Hezkuntza-komunitateko norbaitek eskolako langile bat edo ikastetxeko ikasle baten ama etxean gertatzen den indarkeria matxistaren biktima dela jakitea edo susmatzea<sup>27</sup>

27

[coeducacion\\_planes\\_actuacion\\_pautas\\_actuacion\\_para\\_centros\\_victimadas\\_de\\_violencia\\_machi\\_sta.e.pdf \(euskadi.eus\)](http://euskadi.eus/coeducacion_planes_actuacion_pautas_actuacion_para_centros_victimadas_de_violencia_machi_sta.e.pdf)

### 3. ERANSKINA

#### 3.1 IZAERA PERTSONALEKO DATUEI BURUZKO INFORMAZIOA EMATEKO ETA DATU HORIEK ERABILTZeko BAIMENA EMATEKO AKTA. ERTZAINZA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

SEGURTASUN SAILA  
Segurtasun Sailburuordetza  
Ertzaintzaren Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD  
Viceconsejería de Seguridad  
Dirección de la Ertzaintza

FM0093 V.05

ERTZAINZA

ACTA DE INFORMACIÓN Y CONSENTIMIENTO DE UTILIZACIÓN DE DATOS  
DE CARÁCTER PERSONAL

Expediente de VD/VG: \_\_\_\_\_

Dña./D.: \_\_\_\_\_,

con D.N.I. / Pasaporte / Permiso de residencia / Otro documento de identificación:

sin perjuicio de las previsiones y supuestos de cesión de datos que ampara la regulación establecida en materia de protección de datos de carácter personal; por medio de la presente Acta

1. Se informa que los datos de carácter personal, así como la información vinculada con este expediente:

- En el ámbito de la Ertzaintza serán tratados e incorporados a la actividad de tratamiento prevista para la gestión de actuaciones e investigaciones relacionadas con la protección en el ámbito de Violencia Doméstica / Violencia de Género (EBA).

2. Asimismo, se solicita consentimiento a la citada persona para que tales datos así como la información que resulte necesaria,

- Puedan ser puestos a disposición del Servicio de Atención Telefónica a Mujeres Víctimas de Violencia de Género (SATEVI), pudiéndose realizar encuestas de satisfacción para dar respuesta al seguimiento del cumplimiento efectivo de los derechos reconocidos a las víctimas.

Da consentimiento Sí  No

- Puedan ser puestos a disposición de otros organismos que requieran la información para desarrollar su labor de asistencia social y defensa de los derechos de las víctimas; o para solicitar a estos información, todo ello, a fin de dar eficaz respuesta a la gestión integral de la asistencia a las personas víctimas de la violencia de género.

Da consentimiento Sí  No

Fecha: \_\_\_\_/\_\_\_\_/\_\_\_\_

Firma:

Usted tiene derecho a acceder, rectificar y suprimir los datos, o a la limitación de su tratamiento, ejercitando estos derechos ante el Responsable del tratamiento (Viceconsejería de Seguridad-CEDPE) mediante el procedimiento de ejercicio de derechos en materia de protección de datos: [www.euskadi.eus/servicios/10842/](http://www.euskadi.eus/servicios/10842/). Así mismo, usted tiene la potestad de dirigir cualquier reclamación ante la Agencia Vasca de Protección de Datos (Beato Tomás de Zumarraga, 71, 3ª planta, 01008 Vitoria-Gasteiz) o puede realizar una reclamación previa ante el CEDPE -Centro de Elaboración de Datos de la Policía de Euskadi- sito en Larrauri Mendotxe Bidea nº 18, 48950 Erandio dgvs@seg.euskadi.eus.

#### 4. ERANSKINA

##### 4.1 DATU PERTSONALAK LAGATZEKO BAIMENAREN AKTA

##### DATU PERTSONALAK LAGATZEA

CESIÓN DE DATOS DE CARÁCTER PERSONAL

<b>Izen-abizenak</b> <i>Nombre-apellidos</i>	
<b>NAN – Pasaportea - Egoitza-baimena - Beste identifikazio-agiri bat</b> <i>DNI – Pasaporte - Permiso de residencia - Otro documento de identificación</i>	

**Legezko ordezkaria edo arduraduna**<sup>28</sup> *Representante legal o persona responsable*

<b>Izen-abizenak</b> / <i>Nombre-apellidos</i>	
<b>NAN – Pasaportea - Egoitza-baimena - Beste identifikazio-agiri bat</b> <i>DNI – Pasaporte - Permiso de residencia - Otro documento de identificación</i>	
<b>Harreman mota</b> <i>Tipo de relación</i>	

<p>Idazki honen bidez, berariaz adierazten dut _____ honako hauek jakinarazi dizkidala:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Emandako datu pertsonalak <b>BERGARAN INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEEI ARRETA EMATEKO ERAKUNDEEN ARTEKO JARDUERA- ETA KOORDINAZIO II. PROTOKOLOA</b> izeneko fitxategian sartuko dira. Fitxategi horren titularra Udala da. Fitxategiaren helburua da niri eta nire ardurapeko pertsonen</li> </ul>	<p><i>Por medio de este escrito hago constar expresamente que he sido informada por ..... de que:</i></p> <p><i>-Los datos personales proporcionados se incorporarán a un fichero denominado II. <b>PROTOCOLO DE ACTUACIÓN Y COORDINACIÓN INTERINSTITUCIONAL PARA LA ATENCIÓN A MUJERES VÍCTIMAS DE VIOLENCIA MACHISTA EN BERGARA</b> cuya titularidad es del Ayuntamiento. La finalidad del fichero es ofrecerme atención integral a mí y a las personas</i></p>
--	---

<sup>28</sup> Behar izanez gero bakarrik bete - Complimentar solo en caso necesario

<p>arreta osoa eskaintzea, zerbitzuaren jarduera koordinatuz.</p>	<p><i>bajo mi responsabilidad, coordinando la actividad del servicio</i></p>
<p>Informazio horrek datu objektiboetan oinarritutako politika publikoak egiten lagunduko du, eta, aldi berean, estatistika- eta ikerketa-helburuetarako erabili ahal izango da.</p> <p>Era berean, eskubide hauek ditut:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Baimen hau osorik edo zati batean emateari uko egiteko eskubidea.</li> <li>- Era berean, ezezko horrek izan ditzakeen ondorioen berri emango didate.</li> <li>- Bergarako Udalean datuak eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta horien aurka egiteko eskubideak erabil ditzaket.</li> </ul> <p>Eta horren guztiaren arabera, askatasunez ematen dut baimena, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren eta Datuak Babesteko Europako Erregelamendu Orokorraren arabera.</p> <p>Bergaran, 2023ko .....ren .....(e)an</p>	<p><i>Esta información ayudará en la elaboración de políticas públicas basadas en datos objetivos al mismo tiempo que podrá ser utilizada para finalidades estadísticas y de investigación.</i></p> <p><i>Así mismo, tengo derecho:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- <i>A negarme a facilitar esta autorización de forma total o parcial.</i></li> <li>- <i>Se me ha informado así mismo de las consecuencias que esta negativa puede tener.</i></li> <li>- <i>A ejercer los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición ante el Ayuntamiento de Bergara.</i></li> </ul> <p><i>Y conforme a todo ello, otorgo libremente el consentimiento conforme a la Ley Orgánica 15/1999 de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal y el Reglamento General Europeo de Protección de Datos.</i></p> <p><i>En Bergara, a..... de ..... del 2023</i></p>
<p><b>Sinadura/Firma</b></p>	

<p>Esku-hartze integral eta koordinaturako nire datu pertsonalak lagatzeko aukera ematen diet markatutako erakundeei:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li><input type="checkbox"/> Bergarako Gizarte Zerbitzuak</li> <li><input type="checkbox"/> Osasuna (Osakidetza)</li> <li><input type="checkbox"/> Bergarako ikastetxeak</li> <li><input type="checkbox"/> Eusko Jaurlaritzaren Segurtasuna (Ertzaintza)</li> <li><input type="checkbox"/> Gipuzkoako Foru Aldundia. Gizarte Politikako Departamentua</li> <li><input type="checkbox"/> Gipuzkoako Gizarte Larrialdietako Foru Zerbitzua</li> <li><input type="checkbox"/> Gipuzkoako BLZ</li> <li><input type="checkbox"/> Lehenengo Auzialdiko eta Instrukzio 3º Epaitegia</li> <li><input type="checkbox"/> Enplegua (Lanbide)</li> <li><input type="checkbox"/> Berdintasuna (Emakunde)</li> <li><input type="checkbox"/> ArartekoA</li> <li><input type="checkbox"/> .....(e)ko Abegi-etxea</li> <li><input type="checkbox"/> Zerbitzu juridikoa</li> <li><input type="checkbox"/> Zerbitzu psikologikoa</li> <li><input type="checkbox"/> Haurren Foru Zerbitzua</li> <li><input type="checkbox"/> SEPE Enplegu Zerbitzu Publikoa</li> <li><input type="checkbox"/> ..... Elkarte</li> <li><input type="checkbox"/> ..... Abokatua</li> <li><input type="checkbox"/> Beste zerbitzu batzuk (berariaz identifikatu)</li> </ul>	<p><i>Marco las entidades a las que permito se cedan mis datos personales para una intervención integral y coordinada:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> <li><input type="checkbox"/> <i>Servicios Sociales de Bergara</i></li> <li><input type="checkbox"/> <i>Salud (Osakidetza)</i></li> <li><input type="checkbox"/> <i>Centros escolares de Bergara</i></li> <li><input type="checkbox"/> <i>Seguridad del Gobierno Vasco (Ertzaintza)</i></li> <li><input type="checkbox"/> <i>Diputación Foral de Guipuzkoa. Departamento de Política Social</i></li> <li><input type="checkbox"/> <i>Servicio Foral de Urgencias Sociales de Guipuzkoa</i></li> <li><input type="checkbox"/> <i>SAV Gipuzkoa</i></li> <li><input type="checkbox"/> <i>Juzgados de Primera Instancia e Instrucción nº 3 de Bergara</i></li> <li><input type="checkbox"/> <i>Empleo (Lanbide)</i></li> <li><input type="checkbox"/> <i>Igualdad (Emakunde)</i></li> <li><input type="checkbox"/> <i>Ararteko</i></li> <li><input type="checkbox"/> <i>Casa de acogida de ....</i></li> <li><input type="checkbox"/> <i>Servicio jurídico</i></li> <li><input type="checkbox"/> <i>Servicio psicológico</i></li> <li><input type="checkbox"/> <i>Servicio de Infancia Foral</i></li> <li><input type="checkbox"/> <i>SEPE Servicio Público de Empleo</i></li> <li><input type="checkbox"/> <i>Asociación .....</i></li> <li><input type="checkbox"/> <i>Abogada/o .....</i></li> <li><input type="checkbox"/> <i>Otros servicios (identificar expresamente)</i></li> </ul>
--	--

<p><b>BAIMEN INFORMATUA, ADINGABEAK DAUDENEAN</b></p> <p>Nire alaba/semea 14 urtetik beherakoa denez, baimena ematen dut, ama/tutore naizen aldetik, bere datu pertsonalak jasotzeko eta datu horiek aipatutako erakundeei lagatzeko, eta baimena ematen dut datu horiek adierazitako ondorioetarako eta helbururako erabiltzeko.</p> <p>Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, honako hau sinatzen dut.</p>	<p><b>CONSENTIMIENTO INFORMADO EN CASO DE PRESENCIA DE MENORES DE EDAD</b></p> <p><i>Siendo mi hija/o menor de 14 años, doy mi consentimiento como madre/tutora para la recogida de sus datos personales y su cesión a las entidades mencionadas, autorizando el tratamiento de los mismos a efectos y finalidad señalada.</i></p> <p><i>Y para que conste y surta efectos oportunos, firmo la presente.</i></p>
<p>Data eta emakumearen sinadura / <i>Fecha y firma de la mujer</i></p>	

## 5. ERANSKINA

### ERAILKETA ETA ERASO MATXISTA KASUETARAKO UDAL ERANTZUNA

Indarkeria matxista jendartean ematen den giza eskubideen urraketa larrietako bat da. Indarkeria hau patriarkatuaren oinarritzko ezaugarri bat da eta azken kausa emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak hainbat mekanismoren bidez sortzea eta birsortzea da.

Indarkeria matxista zuzena izozmendiaren tontorra baino ez da, hau da, ezin ditugu ahaztu, indarkeria matxista sortzea eta birsortzea ahalbidetzen duten egiturazko baldintzak zein baldintza sinboliko eta soziokulturalak. Aukera berdintasunik gabeko gizarteetan, emakume izate hutsagatik emakumeen kontra egiten diren indarkeriazko eraso guztiek osatzen dute indarkeria sexista.

Egoera horretan, emakumeen aurkako indarkeriak gizonen boterea eta emakumeen gaineko kontrola nabarmentzen duen funtzio instrumentala ez ezik, esan bezala, sinbolikoa ere badu. Hori dela eta, emakume guztiei jakinarazten zaie sistema patriarkalaren logika gainditzen badute indarkeriaren biktima izan daitezkeela. Honenbestez, makineria oso baten baitan ematen diren erasoak hainbat eremutan islatzen dira, esaterako: eremu sozial eta ideologikoan, politikoan, kulturean, juridikoan eta ekonomikoan.

Martxoaren 3ko 1/2022 Legearen testu bateginaren arabera —Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako 4/2005 Legea bigarren aldiz aldatzen duenaren arabera— indarkeria da: sexuagatiko indarkeriazko edozein ekintza, emakumeari kalte fisikoa, sexuala edo psikologikoa edo sufrimendua eragiten diona, mehatxua, hertsapena edo askatasun arbitrarioaren ukoa barne.

Mugimendu feministak lortu du duela gutxi arte "arazo familiar edota pribatu" bezala ulertzen zena arazo politiko eta sozial bezala irudikatu eta birkokatzea.

Hori horrela, Bergarako Udalari dagokio, erakunde publikoa den heinean, erantzukizunez eta arduraz jokatzeko, eta EMAKUNDEK, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eudelek ezarritako gidalerroak jarraitzea. Ildo berean, eta terminologiari eta indarkeria moten sailkapenari dagokienez, Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako proposamenak aintzat hartu dira.

Bergarako Udalak eta Martxanterak emakume talde feministak Euskal Herrian erailketa matxista bat edo eraso bat gertatzen denerako prozedura bat zehazteko beharra ikusi dute. Izan ere, elkarrekin ados jarrita, indarkeria matxistak gaitzesteko ekintza

bateratuen deialdiak egitea garrantzitsua da, indarrak batzeko eta salaketa publikoak oihartzun handiagoa izateko. Hori horrela, honakoa adostu da:

Ondorengo kasu guztietan:

- Eudeleko gidaren gomendioak jarraituko dira: "Emakumeen kontrako indarkeria ematen denerako jendaurreko jardueretarako gomendioak".
- Bergarako udalak edo Martxanterak emakume taldeak prozedura honetan zehazten den kasuren baten berri duenean:

1. Komunikazioa egongo da, elkarren artean informazioa elkar trukatzeko eta ondorengo pausoak zehazteko. Martxanterak taldeak bi arduradun izendatuko ditu, koordinazioa egiteko. Udalararekiko harremana berdintasun teknikari eta saileko zinegotziaren bidez izango da, astelehenetik ostiralera 15:00ra arte. Ordutegi horretarik kanpo, arloko zinegotzi arduraduna izango da kontaktua.
2. Zinegotzi arduradunak eta berdintasun teknikariak bilera bat egingo dute, prozedura honetan adostutakoa martxan jartzeko.
3. Zinegotzi arduradunak oposizioari gertatutakoaren berri emango dio.
4. Zinegotzi arduradunak edo berdintasun teknikariak Udaleko prentsa arduradunari jakinaraziko dio, eta adostutako oharra argitaratuko du (sare sozialetan/prentsan).

## **ERAILKETA IZAN DEN KASUAN**

1. Erailketa Bergaran gertatzen bada, emakumea Bergarakoa bada edo une horretan Bergaran bizi bada.

- Bozeramaileen mahaia deituko da albistea prentsa idatzian ateratzen den egunean bertan, edota ertzaintzak/udaltzainak ofizialki jakinarazten digutenean. Martxanterak taldeak ere bilera horretan parte hartuko du.
- Egun horretarako deituta dauden batzordeak bertan behera geratuko dira. Alkateak jakinaraziko die udaleko langileei e-postaz (V. eranskina).
- Udalak prentsa ohar bidez erailketa matxistaren gaitzespena agertuko du gertatutakoaren berri izatean. Aurretiaz adostutako prentsa ohar eredu egongo da eredu moduan jarraitzeko.
- Martxanterak emakume talde feministak Emakumeen Mundu Martxaren deialdiaren ereduarekin bat eginez, elkarretaratzea egingo du. Erailketa goizean gertatuz gero, egunean bertan egingo da elkarretaratzea, eta arratsaldean izanez gero, berri, hurrengo egunean. Udalak bat egingo du deialdi horrekin eta



herritarrak parte hartzera gonbidatuko ditu. Elkarretaratzea udaletxe aurreko plazan izango da 19:00etan.

- Dauden giza eta baliabide materialak eskainiko zaizkio familiari:
  - Familiarekin harremanetan jarriko dira: Alkateak edo horretarako delegatzen duen zinegotziak familiari arreta eskainiko dio (III. eranskinetan gida).
  - Indarkeria matxista kasuetan esku hartzeaz arduratzen den udal teknikariak egoera aztertu eta familiari dauden baliabideen berri emango dio.
  - Baliabideak: seme-alabentzako behar den laguntza. Kasuan kasu dagokion baliabideak.
  - Akusazio partikularra izateko aukera aztertuko da.
  - Webgunean Udaletxearen gaitzespena adieraziko da. Leku ikusgarrian jarriko da adierazpena udalaren webgunean. Eta adierazpenarekin batera, udaletxeko argazkia jarriko da, olanarekin (komunikazio arduradunak).
  - Udaleko eraikin batzuetan indarkeria matxistaren aurkako olanak jarriko dira. Berdintasun teknikariak edo zinegotziak abisua pasako diote dagokionari pankartak jartzeko. Jai egunetan udaltzaingoa arduratuko da honetaz. Leku hauetan jarriko dira: liburutegian, polikiroldegian (Agorrosin) eta Irizar jauregian.

### **Erailketa eskualdean gertatzen bada**

- Udalak prentsa ohar bidez erailketa matxistaren gaitzespena agertuko du, albistea prentsa idatzian ateratzen den egunean bertan edo hurrengo egunean (arratsaldean gertatzen bada).
- Aurretiaz adostutako prentsa ohar eredu egongo da. Elkarretaratzearen eguna eta ordua jarriko dira oharrean, baldin eta ordurako Martxanterak taldearekin koordinatzea lortu bada; bestela, elkarretaratzearen ordua eta eguna Martxanterak taldekoekin zehaztutakoan zabalduko ditu udalak.
- Martxanterak emakume talde feministak erailketa gertatu den herriaren deialdiarekin bat egingo du, Emakumeen Mundu Martxaren ereduarekin bat eginez, eta elkarretaratzea egingo dute erailketa gertatu den herrian bertan. Udalak ere bat egingo du deialdi horrekin eta herritarrei elkarretaratzean parte hartzeko deia luzatuko die. Talderik edo deialdirik ez balego, udalak berak egingo luke deialdia/elkarretaratzea.

- Horrez gain, Emakundek, Eudelek edo/eta eskualdeko Udalek eguerdian elkarretaratzeko deia luzatuko balute, udalak elkarretaratzea egingo luke Udaletxe aurrean.
- Webgunean Udalaren gaitzespen-adierazpena irudikatuko da. Udalaren webgunean leku ikusgarrian jarriko da adierazpena, eta adierazpenarekin batera udaletxeko argazkia jarriko da, olanarekin (komunikazio arduradunak). Udaleko eraikin batzuetan indarkeria sexistaren aurkako olanak jarriko dira.
- Berdintasun teknikariak edo zinegotziak abisua pasako diote dagokionari pankarta jartzeko. Jai egunetan udaltzaingoa arduratuko da honetaz. Leku hauetan jarriko dira: liburutegian, polikiroldegian (Agorrosin) eta Irizar jauregian.
- Heriotza gertatutako udalean ez balego baliabide egokirik, udalen arteko elkarlana sustatuko litzateke, familiari beharrezko arreta eskaintzeko.

### **Euskal Herrian gertatzen bada**

- Udalak prentsa ohar bidez erailketa matxistaren gaitzespena agertuko du, albistea prentsa idatzian ateratzen den egunean bertan edo hurrengo egunean (arratsaldez gertatzen bada). Aurretiaz adostutako prentsa ohar eredu egongo da.

Elkarretaratzearen eguna eta ordua jarriko dira oharrean, baldin eta ordurako Martxanterak taldekoekin koordinatzea lortu bada; bestela, elkarretaratzearen ordua eta eguna Martxanterak taldearekin zehaztutakoan zabalduko ditu udalak. Horrez gain, Emakundek, Eudelek edo/eta eskualdeko Udalak eguerdirako elkarretaratze deia luzatuko balute, udalak elkarretaratzea egingo luke Udaletxe aurrean.

• Martxanterak emakume talde feministak Emakumeen Mundu Martxaren ereduarekin bat eginez, erailketaren albistea prentsa idatzian atera eta 24 ordurara elkarretaratzea egingo du. Udalak bat egingo du deialdi horrekin eta herritarrak parte hartzera gonbidatuko ditu. Elkarretaratzea udaletxe aurreko plazan izango da 19:00etan. Talderik edo deialdirik ez balego, udalak berak egingo luke deialdia. Horrez gain, Emakundek edo/eta Eudelek eguerdian elkarretaratzeko deia luzatuko balute, udalak elkarretaratzea egingo luke udaletxe aurrean.

- Webgunean Udalaren gaitzespen-adierazpena irudikatuko da. Udalaren webgunean leku ikusgarrian jarriko da adierazpena, eta adierazpenarekin batera udaletxeko argazkia jarriko da, olanarekin (komunikazio arduradunak). Udaleko eraikin batzuetan indarkeria sexistaren aurkako olanak jarriko dira.

- Berdintasun teknikariak edo zinegotziak abisua pasako diote dagokionari pankarta jartzeko. Jai egunetan udaltzaingoa arduratuko da honetaz. Leku hauetan jarriko dira: liburutegian, kiroldegian (Agorrosin) eta Irizar jauregian.

### **ERASO MATXISTA BERGARAN GERTATU DENEAN, BAINA ERAILKETARIK GABE**

Horrelako kasuetan garrantzitsua da Udalaren eta Martxantera taldearen arteko koordinazioa, bakoitzak daukan informazioa elkarbanatzeko eta ondorengo ekintzak adosteko. Behin koordinatuta, ondorengo urratsak jarraituko dira:

- Martxantera taldeak elkarretaratzea egiteko deialdia luzatuko du. Udalak bat egingo du deialdi horrekin eta herritarrak parte hartzera gonbidatuko ditu.
- Emakumeak nahi izanez gero (bere nahia errespetatuko da), erasoaren gaitzespena adieraziko du udalak prentsa-ohar bidez.
- Erasoa jasan duenak hala nahiko balu, Udalak Udaltzainen edo Ertzainen bitartez jasotako informazioa Martxantera taldearekin partekatuko du.
- Dauden baliabide pertsonalak eta materialak eskainiko zaizkie eraso jasan duen emakumeari eta familiari:
  - Laguntza psikologikoa
  - Laguntza sozio-juridikoa
  - Laguntza ekonomikoa
  - Alojamentua
  - Egoera administratiboa erregularizatzeko laguntza
  - Kasuan kasu dagokion bestelako baliabideak

### **ESKUALDEAN EDO EAEan (Euskal Autonomia Erkidegoan) ERASOA GERTATU DENEAN, ERAILKETA IZAN EZ BADA**

Kasu honetan, Emakundek, Gipuzkoako Foru Aldundiak edo Eudelek elkarretaratzea egiteko deia luzatuko balute, udalak bat egingo luke deialdi horrekin eta parte hartuko luke proposatutako salaketa ekintzetan (elkarretaratzea, adierazpena...)